

*Elkar mugituz
egingo dugu*

Euskararen hatsaldia

Maiatzaren 15etik 25era egingo da laugarren aldiz Euskaraldia, hizkuntza-ohiturak barneratzeko eta aldatzeko ariketa. Goierri prest da.



maizpide

www.maizpide.eus

EUSKARALDIA

*Elkar mugituz
egingo dugu*





Zuzenki

Hirigoien, 7 LAZKAO

www.zuzenkiaholkularitza.eus

AHOLKULARITZA

fiskala • juridikoa • kontablea • laborala



Zerbitzua eta
lana euskaraz



943 16 23 93



600 374 754



zuzenki@zuzenki.eu

EGUZKI ENERGIA PLAKAK

Diseinatu
Instalatu
Mantendu



TAPIA
energia



40
1983-2023
urte zugandik gertu

943 889 594

www.tapiaenergia.com

Argitaratzailea:
Goierriko
Hedabideak SL

Kudeatzailea:
Miren Sudupe

Erredakzio-burua:
Aimar Maiz

Banaketa:
Bidera zerbitzuak
Berria Taldea

Lege gordailua:
SS-1638/2011

Egoitzak:
Beasain:
Oriamendi, 32

Urretxu:
Iparragirre, 11 (Kaletxiki)

Telefonoak:
Beasain: 943 16 00 56
Urretxu: 943 72 34 08

Webgunea:
goiberri.eus

Posta elektronikoa:
goiberri@hitza.eus

Publizitatea:
607 530 424
aarrondo@hitza.eus

Harpidetzak:
943-30 30 35
hitzakide@hitza.eus

Diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Idiazabal, Itsasondo, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zerain eta Zumarraga



Azaleko argazkia:
Goiberri

Jargoilogia



**IÑAKI
DORRANSORO
PLAZAOLA**

ERRETIRATU AKTIBOA

Guztia erabili eta botatzeko dugun mundu honetan esanahi iheskor oren konpulsio-kontsumitzaile bihurtzen ari gara. Aldi berean, zerbait ulertarazteko solasean ari den baten aurrean 'algoritmoak' beti oihuka erasotzen duena saritzen du. Irainik gabeko mezuek txepelak ematen dute.

Georges Buffon (1707-1788) naturalista eta idazle frantziar handiak garbi eta samur azaldu zuen, «egiazko zientzia bakarra gertaeren ezagutza» dela. Baina Modernitatearen garaiak ziren haiek. Egun badirudi betiko pentsamendu ilunaren aroan gaudela: gure ideiak egiazkoak direla geureak izate-gertaera soil horregatik.

Bigarren Mundu Gerrako suntsiketa material eta moral izugarriaren ondoren lurrikara intelektual sakonek astindu zituzten Ilustrazioaren oinarriak. Zutabe horien artean, zientziaren eta ezagutzaren oinarriak. Korrante kritikoen artean eskola anitzek muturrera eraman zuten beraien kritika: «Edozein zientzia, 'bizitza era' baten 'lengoaia joko' bat besterik ez da. Errealitate heldu eta hura irudikatu beharrean lengoaiak errealitatea bera sortzen du». Modernitatearen kritikaren ur zikinarekin batera aurre ere komuneko zulotik bota ote zuten.

Urte pare bat eramango ditut irakurtzen

ditudan 'hitz' berriak nire koadernoan idatziz jasotzen. Jadanik orrialde mordoxka bat beteta daukat. Harrituta nago gaurko 'kultura' deitzen diogun eremu horretan 'errealitate berriak' sortzeko dagoen erritmoa. Jargoi horren adibide batzuk: *woke, woke-aurkako, queer, cool, salseologia, pornocomunismo, pornomarxismo, hipersuperdiber, kakazkaketa (enmierdificación), californication, pansexuala, eromen arrazionala* eta abar. Errusiarrak asmatutako bitxikeria bat ere bai: *Macroner* (asko hitz egitea ezer ere ez esateko).

Norman Baillargeonek *Curso de autodefensa intelectual* liburuan aspaldi definitu zituen *etiketa-hitzak*. Esanahi txar guztiak ezarri eta gezi bat bezala jaurtitzeko aurkariari inongo argudiorik erabili beharrik gabe. Orain ulertu dut nik zergatik *kultura-gerra* deitzen dioten gezi-hitzak bata besteari botatzen ari diren zelai beteko bataila horri. Eta oihulariek megafonoak bereganatuz jakintsu eta zientzialariekiko susmoak zabaltzen.

Errealitatea ikertzea neketsua da eta ideia subjektiboek bidezidor errazagoak ematen dizkigute mundua nolakoa den inguruko arau edo irudiak sortzeko. Baina ideiak baino indartsuagoak dira gertakariak. Behar bada ezjakite aktiboari aurre egiteko gure eskoletan gaztetxoentzako autodefentsa-intelektual ikastaroak abian jartzeko unea iritsi zaigu. ■

EUSKARALDIA
Elkar mugituz egingo dugu
Elkar mugituz egingo dugu

Legorretako Udala

Otaizabal Aroztegia, S.L.

Salbatore Auzoa. Izarraitz industrigunea. BEASAIN
Tel.: 943 160 684 Sakelakoa: 605 757 623
otaizabal@otaizabal.eus
www.otaizabal.eus

Mugimendua hizkuntza pizteko

Maiatzaren 15ean abiatuko da laugarren Euskaraldia. Milaka ahobizi, belarriprest eta arigune arituko dira hizkuntza ohiturak aldatu eta euskarari orain baino leku gehiago egiteko saioan.

ARIANE VIERBÜCHER ITURBE

GOIERRI

Euskaraz ari garenean, ez gara hizkuntza soil batez ari. Identitate batez ari gara, mundua ulertzeko, bizitzeko eta sentitzeko modu batez. Euskaraldia kontzientzia horretatik sortzen da, euskara ikasgeletatik haratago, arlo instituzionaletik haratago bizitzeko premia partekatutik. Denon ahotan jartzeko jaiotzen euskara, kalean, eskolan, etxean, lanean, tabernetan... egunerokoan, alegia.

Euskaraldiak, eguneroko bizitzan euskararen erabilera sustatzeko tresna eraginkorra dela erakutsi du. Edizio bakoitzarekin, parte-hartzea hazi egin da, euskal gizarteak bere hizkuntzarekin eta kulturarekin duen etengabeko konpromisoa islatuz. Aurtengoak –laugarren edizioa izango da– mugimendu sozial hori indartzen jarraituko duela agintzen du.

2025eko maiatzaren 15etik 25era

egingo da berriro Euskaraldia. Hamaika egun izango dira euskaraz entzun eta hitz egiteko, gure hizkuntza-ohiturak eraldatzeko eta hiztunen sare aktiboa indartzeko.

Konpromiso kolektiboa

Parte hartzea da Euskaraldiaren gakoa. Pertsona bakoitzak aukeratuko du nola parte hartu nahi duen: Ahobizi gisa, ulertzen duenarekin beti euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartzen duena; Belarriprest gisa, entzuteko eta euskaraz hitz egitera animatzeko prest dagoena, arintasunez hitz egiten ez badu ere; eta Arigune gisa, taldean euskaraz lasai aritzeko gunea, denetariko enpresa, erakunde edo elkarteetan. Ez dago mailarik, ez dago epaiketarik. Aurrera egiteko gogoia bakarrik, hizkuntzatik komunitatea eraikitzea.

Ariketa sozial masibo horrek erakutsi du gure ohiturak aldatzea posible



Beasaingo eragile sozialak eta politikoak Euskaraldiaren aurkezpenean. Ariane

Vierbücher

dela komunitatean egiten dugunean. Identifikatzen gaituzten txapak ez dira bereizgarri soilak; borondate kolektibo baten sinboloak dira, keinu eraldatzaile baten sinboloak.



Beasain

943881640

www.arriweb.com



Gehitzeko berrikuntzak

Egun gutxi barru hasiko den laugarren Euskaraldi honek, ekimen berriak ekarriko ditu, hala nola, *Euskaraldia Hika*, hika, euskararen forma informal eta aberatsa, berraurkitu eta praktikatzeko gonbidapena. Gainera, data udazkenetik udaberrira aldatzeak, plazak eta kaleak bizitzaz betetzea bilatzen du, topaketa eta elkarrekintza erraztuz.

Hitz egitea baino gehiago

Euskaraldia ez da hizkuntza kanpaina bat bakarrik. Gizarte-kohesiorako tresna bat da, hizkuntzaren errespetura eta bizikidetzara doan herri gisa begiratzeko ispilu bat. Aitzakia da begietara begiratzeko eta erabakitzeko: ni euskaraz, eta zu?

Horregatik, lerro hauek balio dezatela mugimendu horren testigantza

eman nahi duen ale berezi hau irekitzeko. Euskaraz hitz egitea posible, desiragarria eta eraldatzailea dela erakusteko. Euskaraldia ez dela hamaika egunetan geratzen, baizik eta arrastoa uzten duela parte hartzen dutenengan, entzuten dutenengan, ausartzen direnengan, denengan.

Zatoz, egin jauzia. Euskaraldia zurekin hasten da. ■

Euskara da herriaren arima, sustriak elikatzen dituena



GOIMEN

LANDA GARAPENA

Goizane - Zaldibia
T 943 16 12 44
www.goimen.org

ASIER IRIONDO EGUREN EUSKARALDIKO BATZORDEKO KIDEA

Lehenengo ediziotik dago sartuta Asier Iriondo euskaltzalea Euskaraldiaren Legazpiko herri batzordean. Aurten ere ez du hutsik egin, hizkuntzaren erabilera bultzatzea ezinbestekoa dela sinistuta.

TERE MADINABEITIA

LEGAZPI

« Gakoa, euskararen erabileran eragin behar dela da »

Aspaldi eman zituen lehen pausoak aurtengo Euskaraldia prestatzeko Legazpiko herri batzordeak, eta aurreko edizio guztietan bezala, Asier Iriondo bertsolaria (Arriaran, Beasain, 1973) ki-deetako bat da.

Zer da Euskaraldia?

Euskararen alde Korrika, Kilometroak eta horrelako beste jaialdiak badaude, alde emozionala ukitzen dutenak eta beren eragina eta beharrezkotasuna dutenak, baina Euskaraldiak daukan desberdintasuna da, mezuetatik harago, ohitura aldaketan jartzen duela indarra, eta horretarako ahalegin bat eskatzen du. Ohiturarena aitzakia bezala erabili eta aipatu izan da euskararen erabilera txikia justifikatzeko, eta Euskaraldia ohitura hori aldatzeko ahalegin bat eskatzen duen ekitaldi handi bat da.

Zein da ahalegin hori?

Korrikarekin eta beste jaiekin alderatuta, bestelako ahalegina da, ohiturak aldatu eta euskaraz hitz egiteko ahalegina. Orain arte hiru Euskaraldi egin dira, eta ikusten da ez dela erraza, kosta egiten dela. Baina ohitura aldaketa horietan eragin behar da, eta hor asmatzen bada, lortuko da euskara gehiago erabiltzea.

Hori errazteko sortu ziren Ahobizi eta Belarriprest?

Euskaldunok beti ari gara pentsatzen aurrean dugunak euskaraz dakien ala ez, ondo hartuko ote duen guk euskaraz hitz egiten badiogu... Gure barruko borrokak dira, eta konplexuak. Ahobizi eta Belarriprest identifikazioekin lagundu egiten da. Euskararen erabilera ez da kuadrillan edo lagun artean hitz egiten den gaia, ez dakigu besteak euskararekin duen esperientzia, euskaraz eroso sentitzen den edo ez, zer dela eta ez duen pauso hori ematen. Gainera, ohitura beti da biren artekoa, ez da batek bakarrik aldatu behar duena, besteak ere aldatu behar du berekiko. Orduan, batek igual ez du ohitura aldatzen erraztasunik ez duelako, besteak ez du aldatzen pentsatzen duelako aurrean duenak gaizki hartuko duela... Txaparekin, hori aurreratzen da behintzat, txapa ikusita informazioa baduzulako, badakizulako hizketakideak euskaraz egin nahi duela, edo berari euskaraz egitea nahi duela. Hori pauso bat izan daiteke ohitura aldaketa errazteko.

Baina banakako konpromisoaren menpe dago.

Hasieran Euskaraldiak banan-banakako ariketa eskatzen zuen, banakako harre-



Tere Madinabeitia

manetan eragiten zuen, aurrez aurrekoetan. Baina badaude ikerketa batzuk esaten dutenak lehenengo hitza euskaraz egingo balitz, erabilera izugarri igoko litzatekeela. Ariguneak hor koka daitezke, leku batera sartu eta jakinda hor euskaraz hitz egin dezakezula eta euskaraz hitz egingo dizutela, euskaraz hitz egingo duzu. Hor ere identifikazioak paper garrantzitsua jokatu du. **Figura horiek guztiak biltzen ditu aurtengo edizioak ere. Balio izan al dute aurrekoek?**

Egia esan, ez daukat daturik eragin-kortasunaren inguruan, baina nire sententzia da ariketa zaila dela, eta ezin dugula pentsatu zerotik ehunera pasatuko garenik epe motzean. Helburu txikiak jarri behar dira, norberak jarri behar ditu bere helburuak, bere ingurua nolako den eta zein harreman mota dituen ikusita, eta neurtu gero emaitzak.

Baina baliagarria al da Euskaraldia?

Bai, nik uste dut gakoa dela erabilera



Onena litzateke egunerokoa izatea, bai, baina ikusten da ezinezkoa dela. Horrelako ekimenetan komeni da hasiera eta bukaera izatea, eta nik egoki ikusten dut bi urtetik behin izatea, eta hamaika egunetara mugatua izatea.

Beharrezkoa al da?

Euskal Herriak behar du Euskaraldia. Garenaz emozionalki harrotzea eta identitatea garatzea ezinbestekoa da, baina hizkuntzaren erabileran eragitea ere beharrezkoa da, eta hor kokatzen da ohiturak aldatzeko ariketa hori, beste faktore batzuekin batera, noski, behar-ko ditugulako eskubide batzuk, eskubide horiek babesteko lege batzuk...

Aurten udaberrira aurreratu da. Zergatik?

Esaten dute neguan, txamarrekin, txapak ez zirela ikusten... Arrazoi praktikoak direla uste dut.

Legazpira etorrita, zu hasieratik zaude inplikaturik. Zergatik?

Natural samar, esango nuke. Ni Zingi Zango euskara elkartearen nengoen, eta Euskaraldia bultzatzeko ardura hartu genuen. Lehen edizioan, 2018an, ahulduta zegoen gure elkartea, eta Euskaraldia bultzada bat emateko aukera zela pentsatu genuen, ordezkoak etorriko zirela edo. Ez zen horrela gertatu, eta Euskaraldia izan zen bultzatu genuen azken ekitaldia.

Nolakoa izan zen lehen edizio hura?

Jende askok eman zuen izena Ahoibizi eta Belarriprest izateko, txapa asko banatu ziren. Euskararen aldeko ekitaldi bat zen, eta jendea, orokorrean, euskararen alde dago. Kontua da txapa bai, jartzen dela, baina kostatu egiten da

benetan erabileran eragitea. Hurrengo edizioetan ikusi da jaitsi egin dela Euskaraldian parte hartzeko izena ematen dutenen kopurua. Baina nik ez nuke nahi jendeak etsitzea. Bidea hau da, nahiz eta erraza ez den.

Zingi Zango desagertu zen, baina zuk jarraitu duzu euskararen aldeko lanean.

Nik, eta nik bezala beste legazpiar batzuek ere bai. Aurten ere elkartu gara batzuk Euskaraldia sustatzeko herri batzordean.

Zein dago batzorde horretan?

Zortzi-bederatzi lagun elkartu gara, baina herriko elkarte handietako ordezkariak dira gehienak, eta horrek esan nahi du atzetik jende asko dagoela. Kirol elkarteak eta ikastetxeak daude, adibidez, eta hori garrantzitsua da.

Zer egingo da Legazpin?

Pentsatuta dugu mintzalagunei bertso-eskola bat ematea ikastetxeen laguntzarekin, adibidez, eta kirol elkarteek ere egingo dute ekintzaren bat. Baina Legazpin ez dugu kultur agenda huts bat osatu nahi, baizik eta Euskaraldiaren helburua azpimarratu nahi dugu, hau da, ariketa egitea eta ondo egitea, hortik etor daitekeelako aldaketa. Horregatik eskatu diegu kirol taldeei Euskaraldiak iraun bitartean gutxienez, entrenamenduetan eta bi asteburu horietako partidetan euskara erabiltzeko. Euskaraldia ikusaraztea eta gainerako herritarrei ariketa egiten ari direla erakustea da kontua. Agerian jartze horretan udalak ere ipiniko du bere alea, herrian hainbat pankarta jarriko dituelako. ■

bultzatzea ohituretan eraginda, baina emaitza ez dugu erraz ikusiko. Hamai-ka eguneko ekinaldiak izan dira, eta aurtengoa ere halakoa da. Baina denboran mantentzen badira, eta gakoa jartzen bada erabileran eragin behar dela, luzera begira ekarriko ditu emaitza onak. Horrelako ariketak beharrezkoak direla iruditzen zait.

Bi urtetik behin izanda ere?



Ataunen
250 lagunek baino
gehiagok eman dugu
dagoeneko izena, baina
gehiago izan gaitezke.

ATAUNGO UDALA
www.ataun.eus

EUSKARALDIA
Elkar mugituz
egingo dugun

ESNEKI
Euskaraldian
JOGURT
eta
PASTA BIGUN
emateko aukera
dago

**Etorri baserriko denda
ezagutzera eta ezagutu
gure produktu berriak**

iztueta
naturarekin orrekan

iztueta@iztueta.eus

Iztueta baserria | Lazkao mendi 20210 Lazkao, Gipuzkoa

@iztueta.esnekiak



Ordizian Euskaraldirako herritarren eta ordezkarien argazkia, martxoan. Loinaz Agirre

Egitarautik harago, ariketa

Euskaraldiak iraungo dituen hamar egunetarako, ekitaldi batzuk antolatu dituzte Goierriko herrietan. Baina festa-kutsutik harago, ariketa soziala egitea da ekimenaren xedea, eta euskaraz jarduteko ohiturak sortzea eta hartzea.

LOINAZ AGIRRE – AIMAR MAIZ

AUZOKI
KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOAK SL
Kol. Zenb. 599
Araba kalea, 1 ORDIZIA
auzoki@auzoki.eus T. 943 087 486 M. 688 651 379

Iturri zaharreko ur berria garelako
euskaraz bizi

ZALDIBIAKO UDALA
zaldibia.eus

EUSKARALDIA
Elkar mugitzen egingo duguzue

M

aiatzaren 15etik 25era, egitarau arranditsurik ez daia ikusiko Goierriin,

Euskaraldiarekin lotuta. Egia da zenbait tokitan euskarazko antzerkiak, emanaldiak, kontzertuak edo ikuskitzuna antolatu dituztela. Baina helburua beste bat du ekimenak: euskaraz aritzeko ohiturarik ez duten euskaldunek kontzientzia hartzea, eta euskaraz jarduteko ohitura sendotzea; euskaraz ez dakitenek, berriz, jarrera proaktiboa besarkatu, eta hizkuntza bereganatzeko ideia ausartzea. Urtearen gainontzekorako uzta-lurra ereiteko garaia da. Herrietako Euskaraldi batzordeek zertan eta nola lan egin daitekeen hausnartu dute. Ondorengo. hauek dira adibide batzuk.

BEASAINEN, UMOREA ETA HIKA

Alaitasunetik eta umoretik eragin nahi du Beasaingo Euskaraldiko batzordeak. Irrialdia antolatu dute, horretarako. Sei ekitaldi txertatu dituzte egitarau horretan, umorezko bakarriketariak, Imanol Ituño magoa eta Marimotots eta Porrotx pailazoak gonbidatuta.

Euskaraldiak, oro har, hikari eskaini dio aurtengo edizioaren ekarpen gehigarria. Toka eta noka formak berrindartzeko, Beasainen aplikazio berritzailea gauzatu dute. Hizketaren naturaltasuna eta bizitasuna iradokitzen duen Segurako antzerki taldearen Zopa antzezlanak osatuko du atal hori.

ORDIZIAN, PARTE-HARTZEA

Ordizian indar nagusia parte-hartzean eta Euskaraldiko ariketa «ondo» egitean jarri dute, batez ere. Jendeak egun horiek «benetan jende gehiagorekin eta gehiagotan euskaraz egiteko» hartu ditzan nahi dute. «Herrian ere sumadadila euskararen erabilera areagotzen ari dela, eta jende gehiagorengana iritsi garela Euskaraldiaren bidez. Eta kontua ez dela ariketan bakarrik geratu, baizik gero ere nolabaiteko konpromiso hori mantenduko dela», azaldu dute Ordiziako bultzatzaileek.

Lortzen diren aurrerapauso eta urrats horien testigantzak biltzeari ere garrantzia eman diote. «Euskarara gerturatu diren jatorri askotako herritarrei errekonozimendu bat adieraztea garrantzitsua da, besteek ere ikus dezaten badirela kanpotik etorri direnak euskarara hurbildu direnak». Maiatzaren 15eko hasierako ekitaldian, txupinazo moduko bat antolatuko dute, eta espazio hori haiei utziko diete.

Azken egunean, berriz, «konpromiso irakurketa» egingo dute. «Elkarteei proposatu zaie euskararekiko konpromiso bat hartzeko. Euskaraldia maiatzaren 25ean bukatzeak ez du esan nahi euskararekiko konpromisoa orduan bukatuko denik. Hortik aurrera ere lanean jarraitu behar dela eta herri mailan euskarari, erabilerari eta sarea josteari indarra eman behar zaiela adierazi nahi da».

Hala, behin Euskaraldia igarotzen denean, kanpaina bat abiarazteko asmoa dago Ordizian, kanpotik bizitzera etorri diren atzerritarrei ere lehen hi-

tza euskaraz egiteko, eta «itxura fisikoagatik aldaketa hori zergatik egiten den» herritarren artean kontzientzia lantzeko. Hika jardutea edo ohitura hori hartzea ere proposatuko diete ordiziarrei Euskaraldiko egunetan. «Ea kalean hika gehiago entzuten den». Ikastaro bat jarriko dute horri begira.

LEGAZPIN, ELKARTEEI DEIA

Ekitaldi sortarik edo egitarau berezirik ez du prestatu Legazpiko batzordeak. Ariketa gauzatzen ipiniko dute arreta, eta hizkuntza ohiturak sendotzeko elkarte, talde eta erakundeengan utzi dute zeregin hori. «Herri batzordearen hiru bileretara bertaratu direnei eta interesa agertu duten herriko ikastetxeei eta hainbat kirol elkarteri gauza bat eskatu diegu: euren elkartearen edo entitatearen Euskaraldiaren ariketa egiteko ekintzak izan daitezela».

Kirol elkarten kasuan, Euskaraldiko egunetako entrenamenduak eta bi asteburuetako partidak euskaraz izateko konpromisoa hartzeko galdegin dute. «Hau da, ariketa benetan egiteko konpromisoa hartzea eta hori ikusaraztea». Eskoletan ere ikasleekin gaia landuko dute.

Kultur agendarik nahita ez dute antolatu Legazpiko Euskaraldian Izena emango dutenek ariketa «ondo» egitea nahi du herri batzordeak, eta antolatuko diren ekitaldiak horretara bidera daitezela.

SEGURAN, ERAGILEAK ERDIRA

Ekimenaren hasieratik, Euskaraldiaren ikur eta ezaugarri izan dira hamai-

Luma Gorri
BERTAKOA · BETIKOA · BASERRIKOA

Baserriko OILASKOA
Paregabea!

www.lumagorri.com



kakoak. Izena osatzen duten hizkiak adina herritar elkartu ohi dira, talde, elkarte, antolamendu edo multzo askotarikoetan ordezkari direnek osatuta. Ordezkaritasun horri ere etekina atera diote zenbait herritan, 11 herritar aukeratu, eta bakoitzak euskararekiko daukan edo hartu duen konpromisoa gizarteratu dute, beste batzuentzat animo edo inspirazio iturri izan daitezkeelakoan.

Seguran hamaikakoa herriari aurkezten jarri dute indarra. «Herriko eragile pilo bat elkartu ditugu hamaikakoa osatzeko, osasungintza, zerbitzuak, Altxa Burua ekimena, musika taldeak, gazteak...». Bideo bat grabatu dute.

Arnasguneek –Segura hala da– euskararen biziraupenean eta bizi-kalitatean daukaten pisua ikusarazteko, bestetik, hitzaldi bat antolatu dute. «Hizkuntza gutxituen inguruko lan bat egiten ari dira. Gipuzkoan arnasmune diren hiru herritara etorri, eta galde-tegi bat lantzen ari dira». Seguran jaso

zena azalduko dute hitzaldi horretan. Euskaraldirako eta Hikaldirako partaideak batzeko, herrian aurrez egin diren festak baliatu dituzte, apirilaren 12ko kinto eguna, esate baterako.

PLANGINTZAK BERRITZEN

Herri txikiagoetan ere baliatuko dute Euskaraldiaren astindua, euskararekin lotutako ekimenei begiratu bat emateko. Araman, Altzagan eta Itsasondon, adibidez, euskara sustatzeko plan estrategikoa berritzeko lanean ari dira, kide diren Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearekin (Uema) batera. Hiru herrietako euskararen egoera eta herritarren iritzia jasoko dituzte.

Hain zuzen ere, biztanle gutxiko udalerrietan ere zenbait forotan «kezka» bat badabil, azken urteetan: euskararen erabilera gutxi egin dela, kalean euskarak presentzia galdu duela, eta bai haurrek, bai helduek, erdarara gehiago jotzen dutela.

Udal zein administrazio mailako bes-

te jarduera batzuetan bezala, Euskaraldirako batzordea batera sortu dute Altzagak, Aramak eta Itsasondok. «Herri txikiak gairela ikusita, eta ekintzak aurrera ateratzea edo jendeak parte hartzea kosta egiten dela ikusita, herrietan antolatuta zeuden ekintzak bateratzea erabaki zen, Euskaraldiaren inguruko deialdia egiteko eta girotzeko», azaldu dute batzordekoek. Ahalegin berezia egin dute herritarrak erakartzen, Itsasondoko mus txapelketa, Aramako pailazo ikuskizuna edo azoka aprobeztatuta. Herritarrak Euskaraldiaren parte bihurtu dituzte, hamaikakoetan sartuta edo pankartekin argazkiak aterata. Eranskailuak ere sortu eta zabaldu dituzte.

Dagoeneko fruitu batzuk ontzen ari dira. Itsasondon Mintzalagun taldea berriro martxan jartzeko beharra ikusi dute, eta jada ostiralero elkartzen hasi dira. Euskaraldirako ere inplikazio handia erakutsi dute, eta txapak banatzen beraiek ariko dira. Arreta berezia izan-

Biona
aroztegia

Erratzu Industrialdea, z/g
Tel.: 943 72 02 55
URRETXU (GIPUZKOA)

www.biona.net

JAUREGI
OPTIKA • AUDIOA

ARGIDER JAUREGI

Nafarroa etorbidea, 13 BEASAIN
943 02 73 42 | 688 743 177

www.jauregiptika.eus

herriko denda

IBALUR

Asteleheneetatik ostiralera: 08:00 - 19:00
Larunbata, igandea eta jai egunetan: 08:30 - 12:30

@ibalur_herrikodenda
943 96 72 19 | 722 36 61 73

ITSASONDO



Ezker-eskuin: Legazpiko Ilintxakoak, Itsasondoko Urkipe eskolakoak eta Zumarragako batzordea, 2018ko Euskaraldian. Goiberri

go du hiru herrietan txapa banaketak. Aurreko urteetan udaletxeetan eman baldin bazituzten, aurten kalean banatuko dituzte, egun banatan –ikus agendan–.

Esku-orri bat argitaratu dute, hiru udalerrietako herritarrei galdetuz Euskaraldian zergatik parte hartuko duten eta zer paper hartuko duten. Informazio gehigarria etxez etxe buzoietara bidali dute. «Ezer berezirik ez», baina beste urteetan baino lanketa handiagoa ari dira egiten Altzagan, Araman eta Itsasondon.

LEGORRETAN, GEROARI BEGIRA

Igaroko dira hamar egunak, eta etorkizunerako oinarri batzuk jartzea hartu dute zeregin nagusitzat Legorretan. «Gure kezka handiena ohitura komunikatiboak aldatzeko bideak jartzen hastea da, epe luzerako». Euskaldunek «berehala gaztelaniara pasatzeko» duten ohitura geroz eta zabalduagoa aipatu dute Legorretako batzordekoek

aldatu beharreko azturatzat, adibide bat ematearren.

Lanketa soziolingustikoaz gain, soziala ere garatuko dute. «Euskaraldiaren helburua aintzat hartuta hasi gara lanean. Momentuz, eragile ezberdinekin hitz egiten hasi gara. Ez da gutxi», aitortu dute legorretarrek.

EGOERA ULERTZEKO BIDEOAK

Ataunen, Uemako kide den heinean, mankomunitateak ekoitzi dituen 'Euskararen egoera ultzerko gakoak bideoak' zabaldu ditu udalak. Euskaraldiaren hizkiak bezala, 11 dira bideoak. Euskararen gaur egungo egoera zein den adierazten dute ikus-entzunezkoek, zenbait gako edo arrazoi aurkeztuta.

Euskaraldirako beren beregi antolatu dituzte ekitaldi batzuk ere. Beasainen bezala, Zopa antzerkia ikusi ahalko da Ataunen ere, maiatzaren 23an. Txapak udaletxean, liburutegian eta San Martingo plazan banatuko dituzte.

URRETXUN ETA ZUMARRAGAN, BATERA

Areizaga-Kalebarren plaza bihurtuko da Urretxuko eta Zumarragako Euskaraldiaren bilgunea. Hasierako eta bukaerako ekitaldiak han egingo dituzte, baita okasiorako antolatutako mikroipuin lehiaketako sari ematea ere. Bi udalek lankidetzan sortu dute literatura sariketa hori. Euskararekin lotuta, 500 eta 1.000 karaktere bitarteko narrazio laburrak idatzi behar dira. Maiatzaren 22an da sari banaketa.

Zintzo Mintzo euskara elkarrekin jarriko du alea. Mendi ibilaldia antolatu du, maiatzaren 18rako. Ohikoa duten bezala, bi herrietako parajeak eta jakingarriak bertatik bertara ikusteko eta ezagutzeko aukera izango da. Deskarga aldean egingo dute kultur ibilaldia, paraje haietako historiak, gertakariak eta ondarea kontatuz.

Hika lantzeko mintzadromoa eta ginkana ere antolatu dituzte Zumarragan eta Urretxun. ■

EUSKARALDIA
Elkar mugituz egingo dugu

ZEGAMAKO UDALA

943 80 11 15
www.zegama.eus

Gaur
logistika

Logistika eta Garraioa
trafico@gaurlogistika.com
www.gaurlogistika.com
943 888 938



Goiberri

IÑIGO MORENO AHOBIZIA

Euskal Herrian jaio ez arren, euskalduntzat du bere burua Iñigo Moreno bartzelonarrak. Haurra zenean Donostiara etortzen zen amona bisitatzerara, baina orain Legazpin bizi da. Danimarkan ezagutu zuen bikotekide legazpiarra, eta lana Euskal Herrian aurkitu ondoren, euskara klaseak jasotzen ari da, duela ia lau urtetik. Euskaraldian, lehen aldiz, Ahobizia izango da.

IZARO VILLARREAL LAUROBA

LEGAZPI

« Ahobizi izatea erronka pertsonal handia da niretzat »

Non jaio zinen?

Bartzelonan jaio nintzen, eta familia hemengoa ez dudan arren, amona Donostian bizi zen. Oporretan bertara joateko ohitura genuen, eta euskara ez nekien arren, banuen euskal kulturaren berri. Amona hil zenean, baina, etortzeari utzi genion.

Urte batzuk beranduago, Danimarkara joan nintzen masterra ikastera, eta bertan ezagutu nuen nire neska-laguna dena, legazpiarra. Hasieran erdaraz egiten genion elkarri, baina bera ere katalana ikasten ari zenez, katalanez hasi ginen hitz egiten, eta horrek, aldi berean euskara ikastera bultzatu nin-

duen. Danimarkatik ikasten nuen garaian hartan euskara, masterra bukatu bitarte. Ondoren, baina, lana bilatzen hasi ginen bai Bartzelonan eta baita Euskal Herrian ere; biok hemen lortu genuenez, Euskal Herrira etorri ginen bizitzera.

Orduan hasi zinen euskara klaseetan?



ZUEKIN

KOMUNITATEAK

- GERTUTASUNA
- KOMUNIKAZIOA
- KONPROMISOA
- ETXEZ ETXeko ZERBITZUA

Gure gunea. Zure gunea.

Elosegi 20 · Lazkao · 943 88 65 53

621 27 15 70 @ zuekin@zuekin.eus

Donostian eman nituen aurreneko urteak, eta hango euskaltegi batean hasi nintzen euskara ikasten. Hiru urte bertan egin ondoren, Legazpira etorri ginen bizitzera eta orain hemengo euskaltegian ari naiz. Dagoeneko lau urte daramatzat euskara ikasten, eta konplexutasunak dituen arren, ondo moldatzen ari naiz.

Zerk bultzatu zintuen horretara?

Neska euskalduna edukitzeak, noski. Baina ez horrek bakarrik. Euskal Herriara bizitzera etorri nintzenean euskal kulturara egokitu nahi izan nuen behala; euskara jakin nahi nuen, izan ere, horixe bera nahi izaten dut norbait Kataluniara datorrenean, eta itxurati samarra litzateke nire aldetik euskara ikasiko ez banu.

Egia da inguru euskaldun bat izateak asko errazten duela euskaraz hitz egiteko ohitura hartzea, edo hori sumatu dut nik. Etxean egunero euskaraz egiten dugu neska-lagunak eta biok, baita haren familiarekin ere, eta asko laguntzen dit horrek. Ezinbestekoa da, euskara ikasteaz gain, praktikan jartzeari. Askok nabaritzen dut hori nire euskaltegiko kideekin: agian, gramatika edo idazketa ondo menperatzen dute, baina badago jendea gerora euskara praktikan jartzen ez duena.

Euskara praktikan jartzeko ingurua baduzu, beraz.

Bai. Gainera, nabarmen gertatzen zaidan faktoreetako bat da jendeak euskalduna naizela pentsatzea. Iñigo deitzen naizenez eta eguneroko elkarrizketetan aurreneko hitza beti euskaraz egiten dudanez, ez dute uste katalana

naizenik. Gaur egun, adibidez, Euskal Herriko Casteller taldean nago eta beraien ere gauza bera gertatzen zait: asko oraindik erdaraz hasten zaizkit. Ni euskalduna sentitzen naiz; euskalduna da euskara duena, eta hala kontsideratzen dut neure burua.

Zer diozu Euskaraldiaz?

Halako ekimenek funtzio garbia dute: bertako hizkuntzak iraun dezan sustatzeko baldintzak jartzea. Katalunian ere maiz egiten da halako ekintzen aldeko apustua, nahiz eta horrelako aste konkretu bat ez egon. Nik, pertsonalki, beti parte hartu izan dut, Belarriprest rolaren pean. Oraingoan, baina, Ahobizi izateko animatu naute. Erronka pertsonala da niretzat, izan ere, batzuetan lotsatu egiten naiz euskaraz egitean, badirelako ongi menperatzen ez ditudan hitzak, eta, beraz, horri buelta eman eta neure burua euskaraz egitera derrigortzea erronka bat da niretzat. Bien bitartean, ekimen polita eta beharrezkoa dela iruditzen zait.

Euskarak etorkizun beltza izango duela diote. Zer diozu?

Egoera desberdinak daudela iruditzen zait: bada euskaraz dakien eta egunerokoan erabiltzen ez duen jendea; bada euskaraz zertxobait dakiena, baina in-

guru euskaldun bat ez izanagatik ohitura falta handia duena; bada jendea euskara esparru konkretu batzuetara mugatzen duena, esaterako, eskola barruko tresna gisa ikusten duena, eta hortik kanpo batera erabiltzen ez duena. Errealitateak dira horiek denak, eta, egia da, kezka puntu bat sortzen dutela nigan.

Hala ere, iruditzen zait jende horrek oraindik baduela tartea euren hizkuntza-ohiturak aldatzeko. Optimista naiz zentzu horretan. Izan liteke agian denbora gutxi daramadalako Euskal Herriari, baina Katalunian ere gauza bera gertatzen ari da, nahiz eta nabarmen agerikoagoa izan Euskal Herriari. Iruditzen zait hizkuntzek oso poliki eboluzionatzen dutela, eta, beraz, oraindik berreskuratzeko aukera dagoela. Horretarako, baina, ezinbestekoa da denok gure partetik aletxo bat jartzea eta barneratuta dauzkagun ohiturak aldatzen ahalegintzea. Euskara erabili egin behar da, praktikatu, kalera atera.

Zer esango zenioke euskara ikasten hasteko beldurra duen hari?

Euskara ikastera animatuko nuke. Bada trikimailu bat hasi berritan oso baliagarria egin zitzaidana: abestien bidez euskara ikastea. Maiz, hitz bat irakurtzerakoan eta bere esanahia ez baldin badakizu, hiztegian begiratu ulertzen duzu hitz horren esanahia. Ordea, abesti batean hitzen bat behin eta berriz errepikatzen bada, azkenean, buruan gordeta geratzen zaizu, eta bada ikasteko beste modu bat, nahi gabekoa. Bulego taldeak asko balio izan dit horretarako. ■

« Euskararen kasuan ezinbestekoa da ikasitakoa praktikan jartzea »

ZUBIKOETA, S.L.
GASOLINDEGIA



**BEROGAILUENTZAT
GASOLEOA**
AUTO - GARBIKETA
ERREGAI MOTA GUZTIAK

Zubikoeta Industrialdea, 1 **ATAUN**
Tel.: 943 180 486 Faxa: 943 180 487
zubikoeta@zubikoeta.es

urrats
PODOLOGIA ZENTROA

MIREN ALVAREZ JUARISTI

943 72 52 23
Ibaeaga 31 - URRETXU
www.urratspodologia.eus



MUJIKA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 **ORDIZIA**

LIBURU DENDA



Aimar Maiz

AITOR ALDASORO HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEA

Euskaraldian, arreta euskaldunengan jarri beharrean, erdaldunak eta euskara bere ez dutenak erakartzea nahi du Aitor Aldasorok, eta Belarriprest gehiago. «Ez da festa bat, ariketa sozial bat baizik».

AIMAR MAIZ
BEASAIN

«Jauzia egiteko zoru askoz hobea daukagu gaur egun»



« Euskaraz bizi garenotatik aparte etorriko da jauzia, horren kontziente behar dugu»

« Gune ez-formaletara iritsita handituko da erabilera, aisialdian eta lan munduan»

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan ari da Aitor Aldasoro Iturbe (Beasain, 1967), irailaz geroztik. Euskarak sail guztietan zehar-lerro izan behar duela defendatu du. Euskaraldiaren balioa, berriz, euskalduneharagoko ariketa sozialtzat ikusten du, erdaldunak edo euskara bere ez dutenak «erakartzeko».

Euskaingintzan jardundakoa zara, bai Beasainen, bai erakundeetan.

Euskararen kudeaketan 2003an hasi nintzen, nahiz eta aurretik ere Eibarren ikasten nuenean euskara taldeetan-eta beti ibili naizen. Gure esparruetatik kanpo, zoritxarrez euskaraz bizitzea ez da normala. Nik egunak egiten ditut erdaraz hitz egin gabe. Ingurugiro sailean nengoenean egiten nuen. Orain,

hasi behar dudanean, gaizki sentitzen naiz. Hemen [jaurlaritzan] bertan, batzuentzat pentsaezina da hori. Euskara kontuak beti gustatu izan zaizkit, bertso munduagatik izugarri. Etxean, amari-eta euskara kendu egin zieten; aitari ez, zaldibiarra da. Etxean euskararen garrantzia jan egin dugu guk.

Nola bizi duzu gaur egun euskara?

Beti daude heldulekuak 'zer gaizki gauden' esateko. Euskarak, edo euskararen munduan gabiltzanok, bekatu hori badaukagu. Baina datu kuantitatiboak hartuta, zerbait ondo egin da. Beste gauza bat da aurrera begira orain azti ibiltzea, eta estrategikoki jakitea non eta nola jarri behar diren arrautzak. Bestela, baikorrak izateko zorua daukagu. Kanpoko jende pilo bat datorrela esaten da, eta egia da, baina industria-

lizazioan etorri zena baino gehiago ez da etorriko. Herri hau aldatu egin zuen hark. Orain egiten ari diren inkestak eta prospekzioak garai hartako datuak hartuta egiteko gogoak daukat. Pentsatzen dut egoera suntsitzekoa aterako litzatekeela, eta buelta eman zitzaion.

Baikorra zara, beraz?

Gaur egun, mila aldiz hobeto prestatuta gaude. Jauzi bat egin behar dela esaten da, eta ados nago. Baina jauzi horretarako zoru askoz hobeak daukagu, eta ezinbestean asmatu behar dugu estrategietan.

Euskaraldiak zertarako behar du?

Euskaraldia da estrategia horien adibiderik onena. Euskaraldiak ezin dio euskaldunon zilborrari begiratu, eta hori egiten dugunero aukera bat galtzen ari gara. Euskaraldiaren potentzial nagusia euskarara erakartzeko ahalmena edo enpatia lantzea da. Erdaldun bat erakartzeko gaitasuna garatzen dugun heinean, hor dago balioa. Benetako ariketa hori da: euskaldunok eta euskara dominatzen ez dutenek baina aldeko jarrera bat dutenek, hori lantzea.

Jauziak norantz, nola eta zenbateraino jo, gizarte osoarentzat puntu komunik ikusten duzu?

Jauzia ez da euskaldunon artekoa izango. Euskaraz bizi garenotatik aparte etorriko da jauzia, eta horretaz kontziente behar dugu. Mahai oso bat baldin bada bizi garen esparru guztia, euskararena pusketa bat bakarrik da, eta hemendik nekez etorriko da jauzia; honek izan beharko du bultzatzen duena, baina beste guztian egon beharko du. Horrek esan nahi du zehar-lerroa, esan nahi du lan mundua, batez ere erabileran pausoa ematea. Inoiz ez da hainbeste jende euskaldun egon.

Zenbatak erabiltzen duten da gakoa.

Hezkuntzak jendeari erreminta batzuk eman dizkio, baina horiek nola ekartzen dira erabilerara? Gune ez-formaletan. Ez dakit gune informaletara iritsiko garen (tabernak, kalean lagunekin...), baina gutxienez ez-formaletara, bai. Hau da, aisialdi antolatua, lan mundua, gutxi gora-behera kontrolatutako guneak, euskara planak... Hortik etorriko da jauzia, erabileran salto bat eman nahi baldin bada.

EUSKALDUNAREN ENPATIA, ERAKARPEN INDAR

Beti ere zeharkakoa eginda. Hor, nik uste, euskaldunok enpatia lantzen egundoko lana daukagu. Ariketa ez da 'guk euskaraz dakigu' esatea. Euskaraz ondo ez dakiena ondo sentiarazteko badaukagu lana. Askotan ihes egiten dugu, eta gure inguruan hesiak eraiki: gure perfekzioa euskaraz, gure hikak edo azkar hitz egiteak... Euskaltegietan eta inguru horietan jorratu, landu edo garatu den jarrera bat da, baina bestela, gizaratean, badaukagu hori lana.

**Euskalgintzan badago etsipen senti-
mentu bat. Urtetako lanaren ondoren
ere, bururik ezin altxa, euskara itotzen
ari den sentsazioa. Bat egiten duzu?**

Batere ez. Ez nintzateke hemen egongo bestela. Euskaldun bezala ere ez daukat sentsazio hori. Hizkuntza teknologiak, adibidez, aukera bat dira. Nire helburua da Siri bat euskaraz edukitzea, eta hori egundoko aukera da euskara zabaltzeko ere. Bitartean, hizkuntza hegemoniko batzuen ondoan gaude, beti atzetik. Baina hori ari gara. Gaur egun, egindako lan izugarriagatik corpus nahiko zabalak daukagu, geroz eta tresna gehiago daude euskara hutsean, lan munduan enpresa batzuek dena euskaraz funtzionatzen dute... Horiek dira eredu eta jarraitu beharrekoak. Inoiz eduki ez dugun zorua eta inoiz eduki ez dugun euskaldun kopurua daukagu. Hori aukera bezala ikusten ez badugu, jai daukagu. Eta ez da begiak ixtea, zeri begiratu nahi diozun baizik. Dramatismoetatik eta 'kitto, dena eginda dago'-tik alde egin behar dugu. Hobetu egin behar dela esan dezagun, baina pentsatzen dut daukagun zorua esperantzarako bidea ematen duela.

Zoru horretan zer landu behar da?

Hizkuntza gutxituetan munduan gu eredu gara. Garabide egiten ari den lana da, hain justu: euskara eta Euskal Herriak egin duen bidea adibide bezala jarri, beste hizkuntza gutxituek zer egin behar duten bere burua ateratzen hasteko. Noiz ateratzen da burua, ingelesaren eta espainolaren ondoan? Nik uste, esparruak irabazten joatea dela kontua, non euskaraz doktoretza egin daitekeen, non lan munduan inguru euskalduna eduki dezakezun, non seme-alabek aisian euskaraz funtziona-

Itxaropena eta baikortasuna islatzen ditu Aitor Aldasorok, euskararen etorkizunari buruz ari denean. Karguaren arduragatik puska handi batean, ziurrenik. San Prudentzio bigarrean ia hutsik eta lasai dagoen Lakuako egoitza nagusian -3.000 langile dabilta han-, Euskal Herri osorako analisia egiten du. Ipar Euskal Herria eta Nafarroa gogoan ditu. Haiengatik eta euskararen egoera are larriagoagatik, horregatik bakarrik ezin dela ezkorra izan ziurtatu du.

Euskararako erakarmena sarri aipatu du, baita «zoru egokia» daukala ere. Beasaingo udal euskaltegiko irakasle Gurutze Sukia pare bat aldiz izendatu du elkarrizketan, euskara menperatzen ez dutenekin edo ez dakitenekin behar litzatekeen «enpatia» edo abegia zer den esateko: «Gurutzek zer kapazitate zeukan gogoratzen naiz, geldi hitz egiteko. Bere hizkuntza dinamikak erabat aldatzen zituen, nahiz eta euskaraz jardun: geldiago, errepikatuz...». Jarrera hori sumatzen du faltan, erdaldunak «erakartzeko».

Azken boladan, euskararekin lotuta, poza erakundeek eman diote; «ezagutu ditudanek, zirrikitu gabe, euskararen aldeko jarrera dutela ikusteak». Edo Bilbon zerbitzariak euskaraz atenditzeak. Nahigabea, berriz, «epaitegietan dagoen kontu horrek» eta euskararen erabilera «instrumentalak».

dezaket. Gune horiek irabaztea edo hori euskaraz jardun ahal izateko baldintzak jartzea da. Baina, berriz esango dut: inoiz eduki ez dugun zorua daukagu. Askoz zoru okerragoan aurrera egin baldin bada, saiatzea zor diogu orain arte hainbeste urtean lan egin duen jende horri ere; jaso duguna ere izugarria da. Nik esperantza dut. Noski, hizkuntza politikak arnas luzekoak dira, eta baliabideak jarri behar dira. Aroa marko estrategikoa dago hamar urtera begira, eta orain 5 urterako plan zehatzago bat bukatzen ari gara. Hor asmatu behar da. Gogoeta gune bat badago, lan bikaina egiten ari dena, eta diagnosi horretan denok bat gatzela uste dut, non jarri behar diren ahaleginak.

Adibide batzuk jartzerik bai?

Hizkuntza teknologiak ezinbestekoak dira. Geroz eta eskari gehiago daukaten tresnetan eta adimen artifizialean euskaraz funtzionatu ahal izatea eragingo dute. Esaten dutenez, gure hizkuntza teknologiaren industria Europan puntanekoa da. Itzuli aplikazioa itzulpenetarako... Euskorpora elkarteak martxan jarri da, oso inportantea den zehar-lerro ikuspegi batekin: Industriari hartu du bere horrelako proiektu

bat, ez HPSk. Guk guretik bakarrik ez dugu jauririk egingo; besteak busti behar dira, eta hori bai egongo dela jauria, hasi Gobernantzatik eta jarraitu egiten diren politikek.

Tresnetan aurrerapena egin dela begi-bistakoa da. Baina horiek erabiltzeko nahian, beharrezan, interesean, kontzientzia ez al da mehetu?

Ez dakit gu mehetzen ari garen, edo beste batzuek indarra hartu duten. Etengabeko zera da. Ez naiz ausartzen esatera mehetu edo indartu garen, datu oso zehatzak behar direlako jakiteko. Atzean euskararen prestigioa dago, eta kanpotik datozen artean transmisioan datuak oso onak dira, baita Iparraldean ere. Kanpotik etortzen denak bere seme-alabek hemen euskaraz ikas dezatela nahi du. Lehenengo aldiz ematen da, euskaldun kopurua gehiago dela kanpotik datozen erdaldunen seme-alabena, euskaldunena baino. Bertakoa ikasi nahi dute; ez lanerako bakarrik, hizkuntza batek ematen duen guztia bizi ahal izateko ere bai. Hizkuntza bati prestigioa ematen dio gauza guztietan erabilgarria izateak, eta horretarako euskara prestatuta dago. Gero, Euskal Herriko punta batean agian prestigio bat du,

eta oso gorabeheratsua da toki ezberdinetan. Baldintzak eman behar dira horretarako.

Kontrakoak areagotzen ari ote diren...

Egia da azken aldian administrazioan sartu nahi duen jendeak helegiteak jartzeak eta euskarari mesederik ez diola egiten. Hor helburua euskara epaitegietatik ateratzea da. Maialenen [Lujanbio] bertsoa da: irabazitakoan ere galdu egiten dugu. Euskara hor dagoen heinean, galdu egiten dugu, eta hortik atera beharra daukagu.

Oldarraldi judizialaren kontzepturik bada zure ustez, eta erabiltzen duzu?

Ez dut erabiltzen, baina epaile batzuek egiten dutena oldarraldia den ala ez baino, epai politikoa dela ukaezina da. Kontua da horri irtenbidea epaitegi-ikuspegi batetik eman behar zaio. Alegia, bihotza baino burua erabili behar dugu. 2003an udalean sartu nintzenetik zerbait ikasi baldin badut da zerbitzu bat emateko gaudela herriari, eta dudarik ez dago zerbitzua askoz hobea dela euskaraz ere ematen baldin bada.

Baina eragina izaten ari da oldarraldia: administrazioa zenbait instituzio eta enpresa hasi dira hizkuntz eskakizunak apaltzen edo kentzen.

Nik ez dut uste. Manifestazioan egunerok jar gaitezke, eta ni pertsonalki jartzen naiz horren aurrean. Baina horrekin ezer gutxi egingo dut. Epaitegi-tako auziei epaitegi-tan eman behar zaie erantzuna. Baldin eta euskara epaitegietatik atera nahi bada, ezin da noski mezu epel bat bidali, ezin da gizarteratu mezu epel bat. Dekretuak

« Epaitegi-tako auziei epaitegi-tan erantzun behar zaie, baina ezin da mezu epel bat bidali »

« Euskaraldi honetan Belarriprest gehiago nahi nituzke. Bere potentziala euskarara erakartzea da »

euskararen erabileran normalizaziorako neurriak jartzen ditu oinarri; erabilerarako, ez ezagutzarako. Administrazioan fokua erabileran dago, eta indarrak hori areagotzeko jarri behar dira. Hori esanda, Gipuzkoan eta Bizkaian atzera pauso bat estrategikoki ematea ez da epelak direlako, epaitegietatik ateratzeko baldin bada. Indartsuak ere izan dira Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia. eta munitakoa munitakoaren atzetik jasotzen ari dira. Hala ere, beste alderdiekin ere lantzen ari gara, legeari zer ukitu eman dakiokeen. Dekretua puntu horretan ez da batere aldatu, eta dekretu horrek euskaldundu du administrazioa. Egonkortze prozesu bat hasi da, eta ahotsak badaude esaten dutenak kointurala dela, eta egonkortze prozesua egiten denean bukatuko dela. Juristek esaten dute egoteko lasai, ikusi behar dela horri erantzuten dion edo haratago

doan. Badaude zantzuak pentsatzeko haratago doala ere. Baina ados nago ezin dela erretiratu, erdaldunak bertan goxo geratzeko eta euskara ez dela behar esateko. Epaitegi-tako partida jokatzeko ere jakin behar da. Garbi dago ez zela hau helburua, eta euskararen prestigioaren ikuspegitik penagarria da. Horren aurrean, orain arte balio izan duen erremintak gaur ez du balio, eta horri eman behar zaio buelta.

Euskaraldi honek zer ondorio uztea nahiko zenuke?

Belarriprest gehiago. Euskaraldiak zuen helburua Ahobizi bateko hiru Belarriprest egotea zen. Azkeneko edizioan, behintzat, hiru Ahobizi eta Belarriprest bat zeuden. Euskaraldia ez da festa bat, ariketa sozial bat da. Beasainen 200 euskaldun elkartzea ondo dago, baina nahiago nuke euskara bere ez duten 20 erdaldun ariketa hori egitera gerturatzeko kapazitatea bagenu. Ez da erraza, baina Euskaraldiaren potentziala hori da, han eta hemen: euskarara erakartzea. Lehen esandakoa berebizikoa da: edo enpatia lantzen dugu jendea erakartzeko, edo jai daukagu. Ez Euskaraldian bakarrik, bestela ere bai. Hizkuntza bat erakargarri egiteko, hizkuntzak erabiltzen dituen espazioak erakargarriak egin behar dira. Kanpoko zenbat jende gelditzen den aho zabalik bertso munduarekin, adibidez. Landu beharreko gantxoak dira, eta gaitasuna behar dugu horretaz hausnartu eta pausoak emateko. Ezin dute bertso-laritzak eta literaturak bakarrik izan, ordea. Aspaldi esaten zen: sormenak salbatuko gaitu. ■

AHALEGINAK BATUZ

UGGASA
UROLA GARAIA GARATZEN

Patrizio Etxeberria, 3 - LEGAZPI
Mugitegi ind, 18 - URRETXU
943 72 58 29/30
uggasa@uggasa.eus

Enpresa/Industria
Enplegua/Inklusioa
Ekintzaitetza
Jasangarritasuna

GAINZURI
Eskola Publikoa
URRETXU - ZUMARRAGA

JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

baikara

Jakingo bazenu zein polita den zu euskaraz entzutea...

Euskaraldia hika ere bai

Goierriko hamar herritan Euskaraldia hika egiteko aukera ere izango da aurten, Ataun, Beasain, Idiazabal, Itsaso, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia eta Zumarragan. 'H' pegatinatxo horiak bereiziko ditu.

LOINAZ AGIRRE ELKOROBEREZIBAR

Euskaraldian, Ahobizi eta Belarriprest roletan parte hartzeko aukeraz gain, beste modu bat gehiago ere izango dute aukeratu Goierriko hamar herritako herritarrek: hika forma erabiltzeko ariketa. Euskal Herriko 83 herri egin dute bat Hikaldiarekin, hitanoaren erabile-ra bultzatzeko helburuarekin. Tartean dira Ataun, Beasain, Idiazabal, Itsaso, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia eta Zumarraga.

ZirHika mugimendutik sortu da Euskaraldian hitanoa txertatzeko proposamena. Tauparekin batera ari da lan horretan, eta herritarrak ekimenean parte hartzera deitu dituzte: «Euskaraldia Hika ekimenean izena eman duten herri guztietako herritarrak ariketa egitera animatu nahi ditugu, hitanoa plazaratzeko eta hizkuntza-ohitura berriak sortzeko».

Nola parte hartu?

Euskaraldia Hikan parte hartuko duten 83 herrietan, Euskaraldian parte hartzeko izena ematerako garaian, Euskaraldia Hikan parte hartu nahi duten ala ez galdetuko zaie hasierako formularioan.

Baiezkoaren kasuan, txapa jasotzerakoan, 'H' pegatina hori bat jasoko dute, Ahobizi edo Belarriprest txapan itsasteko.

H-aren esanahia

H pegatinaren esanahia honakoa da: «Nahi baduzu, nirekin hika egin dezakezu». H-a ipintzeko ez dago hika jakin beharrik. Izan ere, hitanoa ikasi edo entzun nahi duenak ere ipin dezake. Hitanoa ikasi edo entzun nahi izatea nahikoa da, solaskideari hika egiteko aukera ematea da helburua. Gero, bien artean erabakiko dute hika egin ala ez.



Segurako Xirikara taldeak hitanoa bultzatzeko sortutako 'Zopa' antzezlanaren egingo du maiatzaren 21ean Beasainen eta 23an Ataunen.

Ekintza osagarriak

Euskaraldia Hikan parte hartzea erabaki duten herrietan aukerakoa izango da hitanoa bultzatzeko ekimenak egitea. Ordizian, adibidez, hika ikastaroa antolatu dute maiatzeko hiru ostiraletan: gaur, 16an eta 23an, 18:45etik 20:15era bitartean. Saio teoriko eta praktikokoak



M studio
arkitektura bulegoa

Mstudio bulegoak arkitektura zerbitzuak baino gehiago eskeintzen ditu; gertutasuna, aholkularitza eta zure helburuekiko konpromezu eta inplikazioa.

arranomendia 2, 3210 bulegoa | 20240 Ordizia
T. 677 983 036 | mirenzubeldia@mstudio.eus | www.mstudio.eus

ORDIZIA
HIZKUNTZA **ESKOLA OFIZIALA**

Ziurtagiri ofiziala | Ingelesa eta Frantsesa

INGELESA: A1 - A2 - B1 - B2.1 - B2.2 - C1
FRANTSESA: A1 - A2 - B1 - B2.1 - B2.2

Talde erdipresentzialak ingelese B1, B2.1, B2.2 eta C1

Tel.: 943 89 96 12
eoiordiziaheo@gmail.com
eoiordiziaheo.hezkuntza.net





Goierriko hamar herritan Euskaraldia Hika egiteko aukera izango da

Hitanoaren erabilera bultzatzeko helburua du Euskaraldia Hika ariketak

egingo dituzte. Doakoa da. Ormaiztegin, maiatzaren 16an, 19:00etatik 21:00etara Hika-poteoa egingo dute udaletxe ingurutik hasita, Eingo! taldearekin. Urretxun eta Zumarragan, maiatzaren 23an, Areizaga-Kalebarren plazan, 17:30ean *Appa Hi!* lehiaketa eta 18:00etan Hikadromoa egingo dituzte.

Beasainen, maiatzaren 21ean, Segurako Xirikara elkartearen *Zopa* antzerkia izango da, eta *Appahi!* aplikazioan Beasaingo hitanoaren bertsioa osatu dute. Ataunen ere *Zopa* antzezlaia izango da, maiatzaren 23an.

Idiazabalen kafe-tertulia bat egingo

dute DBH1eko eta 2ko ikasleekin. Batez ere emakumeen arteko hika sustatu nahi dute neska gazteen artean. Adine txeko jubilatuen elkarte eta Aizan! talde feministaren artean antolatzen ari da. Itsason, ondare ez-materiala jasotzeko helburuarekin, noka hiztunak kontu-jardunean jarri eta jasotzeko lana egingo dute. Gaia emanda, solasaldi laburrak proposatuko dizkiete, bizpahiru minutukoak.

Euskaralditik harago

Dena den, ZirHika mugimenduak Euskaraldiko hamaika egunetatik harago

jarraituko du hitano hiztunak aktibatzen. Euskal Herriko II. Hika Topaketa antolatuko dute azaroan Markina-Xemeinen (Bizkaia), eta abenduan Euskal Herriko II. Hikadromoa antolatuko dute Durangoko Azokan. Hain zuzen ere, 2024ko abenduaren 7an Euskal Herriko I. Hikadromoa antolatu zuen ZirHikak Durangoko Azokan, Geredia ga elkartearen babesarekin. ZirHika taldearen lehenengo ekimena izan zen. Bagera elkarteak gidatu zuen dinamika, eta arrakastatsua izan zen: 75 lagun elkartu ziren, Euskal Herriko lurralde guztietakoak. 38 emakume eta 36 gizona, 18 mahaitan banatuta.

Gazteei lotuta, eta hitanoa biziberritzeko helburuarekin, udalekuetan hitanoa txertatzen saiatzea izango da aurtengo udan beste lanetako bat. Hitanoa hizkera informala denez, aisialdiko guneetan jarri dute arreta. Praktika onen dekalogoia ere osatuko dute. ■

'Appahi!', bost astean hika ikasteko tresna

Egunero 10-15 minutu praktikatuta, bost astean hika egiten hasteko prest. Horixe da 'Appahi!' aplikazioaren erronka. Euskara batuko formaz gain, Beasaingo hitanoa ikasteko aukera ere ematen du.

LOINAZ AGIRRE ELKOROBEREZIBAR

BEASAIN

Badihardugu Euskara Elkartek sortu du hitanoa ikasteko *Appahi!* aplikazioa, CodeSyntax enpresaren laguntza eta garapen teknikoarekin. Oñatin izan du sorlekua, baina Oñatitik Euskal Herri-za zabaldu dute. Azken berritasuna da Beasaingo hitanoa ikasteko aukera ere sortu dutela, Aittu euskara elkartearen laguntzarekin. Doakoa da eta Android zein Apple telefonoetarako dago eskuragarri.

Badihardugu elkarteko Aintzane Agirrebeñaren esanetan, hasiera batean Oñatirako sortu bazen ere, gero «berrehala» euskara batuko bertsioa atera zuten. «Jarraian etorri dira Azkoitia, Eibar, Arrasate eta Eskoriatza, eta aurtan Beasaingoa aurkeztu dugu». Agirrebeñak berak eta Idoia Etxeberrriak osatu dituzte aplikazioko testuak eta galderak, eta irudiak Mirari Sagartza-

zurenak dira. Audio eta bideo gehienak Euskal Herriko Ahotsak proiektukoak dira.

Bost astean, egunero 10-15 minutu eginda, hitanoa ikas daiteke *Appahi!* aplikazioaren bidez. «Zailtasunik gabe, hitanoaren oinarriko egitura guztiak» eskainiko ditu *Appahi!* aplikazioak. «Galdera-erantzunen bidez, hika hitz egiten hasteko behar adina erremin-ta izango da, betiere alderdi ludikotik abiatuta».

Egunero 10-15 minutu

Lehenengo lana aplikazioa deskargatzea da. «Behin aplikazioa deskargatutakoan, aukera dago zein herritako bertsioa aukeratzeko. Horrekin batera, aukera daiteke aplikazioak bidaltzen dituen mezuak noka edo toka jaso nahi ditugun».

Ikasketa prozesuaren funtsa galde-

ra-erantzun estiloko jokoa da. Funtzio-namendua ondorengoa da. 35 egunean, egunero *pilula* batean, informazio jakin bat ematen da: azalpenak, marrazkiak eta bideoak, adibideekin. Ondoren, azalpenekin lotutako galdera-sorta bat dator, zuzen asmatu beharreko partidak. «Galdera guztiei zuzen erantzunez gero, hurrengo egunean beste *pilula* bat egiteko aukera izango da. Aste bukaeran errepasso bat egongo da, eta maila bat igotzeko aukera».

Egunero ikasgai bat

Guztira bost maila dira gainditu beharrekoak, aste bakoitzeko bat, eta egunero ikasgai bat. «Ikasgai batzuk teorikoak dira, lehenengoa adibidez, baina gehienez ikasgai bakoitzaren oinarria aditz taula bat izango da. Egun bakoitzean aditz bat landuko da». Badihardugu elkarteko kidearen esanetan, norberak bere erritmora egin dezake prozesua. «Egunero *pilula* bat osatuz gero, azkarrenak bost astean lortuko du atal guztiak osatzea eta hitanoaren oinarri guztiak lantzea».

Egunero Behin jokoa tankera-ko galdera-erantzun partidak izango dira lagungarri. «Hiru aukera posible dauzkaten galderak izango dira. Hori bai, ez dago presaka erantzun beharrik, ez dago denbora mugarik, eta ez dago partida bakarra. Partida bat baino gehiago jokatzeko aukera dago. Ikasgaien aurrera egiteko, partida guztietako galdera guztiak ondo erantzun behar dira. Zuzen erantzunda ere, aukera dago berriz egiteko, errepassatu nahi bada».



ELKAR

INGENIARITZA - FABRIKAZIOA - METROLOGIA
www.elkar-ingenierie.com

Arranomendia 5-l Goierriko Berrikuntza Poloa
20240 Ordizia (Gipuzkoa) ☎ +34 943 088 874



EUSKARALDIA
Elkar mugituz egingo dugu

2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

San Benito
LAZKAOKO IKASTOLA

Ikastolan ere, euskara, gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin

www.sanbenitoikastola.eus
☎ 943 88 08 00 - @lazkaokastola

Appa hi!

Beasaingo hika

Hasinaunk

Ezaugarriak

NOR
I

EDUKI
I

NOR
II

EDUKI
II

ETORRI
I

ETORRI
II

Errepasoa

'Appahi!' aplikazioan
Beasaingo hikaren bertsioa
aukeratu daiteke.

Behin gainditutako ikasgaia «irekita» geratzen da. «Galderak zuzen erantzun eta ikasgaia gainditzen badugu, hurrengo egunean beste ikasgai bat irekitzen da. Egunean ikasgai bat. Egunean ezin dugu ikasgai bat baino gehiago egin».

Azken batean, hizkuntzak ikasteko beste aplikazio batzuen moduko sistema da, baina kasu honetan, hika hitz egiten hasteko behar adina erreminta eskainiko du. «Edozein momentutan erabil daiteke *appa*».

Erabiltzeko aukera

Hizkuntza guztiekin gertatzen den bezala, argi dago ikasteko ausartu egin behar dela erabiltzera. Euskaraldiaren garaia egokia izan daiteke urratsa egiteko, Ahobizi edo Belarriprest txapari H pegatinatxoa jarrita.

Oñatitik Euskal Herrira

Appahi! aplikazioaren lehenengo bertsioa Oñatiko Udalaren babesarekin atera zen, 2021. urtean, Oñatiko hitanoa biziberritzeko *Ingo xonau!* proiektuaren barruan. «App hau, beraz, Oñatin abiatutako lan haren emaitza da, eta gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu *Ingo Xonau* proiektuko kideei eta Oñatiko Udalari emandako babes eta laguntza guztiagatik».

2022an Badihardugu euskara elkar-teak euskara batuko informazio linguistikoa, aditz taulak eta galdera-sortak ere sortu eta gehitu zituen aplikazioa, Ritxi Lizartzaren laguntzarekin eta aholkularitzarekin.

Oñatin hasitako esperientzia herri

gehiagotara zabaldu dute harrezkero. Dagoeneko, Oñatikoaz eta Beasaingoaz gain, Eibar, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Azkoitia eta Zumaiako ikasgaiak ere badaude aukeran *Appahi!* aplikazioan.

Hizkuntzaren parte

Deba ibarreko euskara elkartea da Badihardugu, eta bere beste lanetako bat Ahotsak proiektua du. «Eskualdeko hizkuntza bultzatzeko sortu zen, herri hizkera eta lagunarteko hizkera. Deba ibarra Gipuzkoa den arren bizkaieraz egiten da, eta konplexuagatik erdararako joera handia egon da. Hortik sortu zen ahozko ondarea biltzeko ideia. Gure proiekturik ezagunena da Euskal Herriko Ahotsak proiektua».

Hizkera desberdinak jasotzeaz gain, euskararekin eta ohiturekin lotutako informazio ugari eskuratu ahal izan dute, besteak beste, hitanoaren inguruan. «Elkarrizketak egin ditugu hainbat herritan hitanoa jasotzeko eta hitanoari buruzko kontuak jasotzeko: zein izan den ohitura, zergatik noka beheraka joan den...».

Agirrebeñak ateratako ondorioetako bat zera da: «Hitanoak fama txar bat eduki du, zakarra dela, baserritarrena dela... Garai batean, gerra ostean euskarari jarri zioten fama txarra eta erdararako joera zabaldu zen, eta horren barruan hitanoak oraindik fama txarra jaso zuen. Neskena, berriz, teoriarik finak izan behar direlako, neskari hika egitea are eta txarragoa da. Hortik dator gainbehera. Baina gure hizkuntzaren zati bat galtzen ari gara». ■



Ahobizi

Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dute uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakitenean, lehen hitzak, beti, euskaraz egiten dituzte; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dute.

1

Zergatik aukeratu duzu Ahobizi izatea?



2

Aurreko Euskaraldietan izan zinen Ahobizi? Aldaketaren bat nabaritu zenuen?



3

Urtearen gainontzean, zer joera duzu hizkuntza aldetik?



AMAIA JIMENEZ LARREA LEGAZPI

«Euskaraldian gehiago hitz egiten du euskaraz jendeak»

TERE MADINABEITIA

Euskaraz hazi eta hezi da Amaia Jimenez, 25 urteko legazpiar gaztea. *Berria* egunkarian kazetari izanik, euskaraz lan egiten du. Hori guztia horrela, oso natural hartu du aurten ere Euskaraldian Ahobizi izatea.

1 Nire egunerokotasunean euskaraz aritzen naizelako izango naiz Ahobizi. Oso gaztetxoan nintzen lehen Euskaraldian, eta orduan ere oso argi izan nuen.

2 Nire ustez, orain jendea kontzienteagoa da euskaraz hitz egitearen beharraz. Eta Euskaraldiko egun horietan zehazki, beste egunetan gaztelerara jotzeko ohitura duenak euskaraz gehiago hitz egiten du. Belarriprest bat aurrean izanda, adibidez, ni saiatu naiz laguntzen, euskaraz elkar ulertzen... Eta nirekin ere euskaraz hitz egin dezaketela adierazten dudana txapa jarrita eramaten dut. Hala ere, inguruan ikusten dudana da jendeak errazenera jotzen duela. Horregatik, guztiak animatzen ditut Euskaraldian parte hartzera, Ahobizi edo Belarriprest izanda, gehiago kontzientziatu daitezkeen euskararen erabileraren premiaz.

3 Lanean euskaraz egiten dut beti, eta kirolean ere bai. La Salle eskubalo taldean jokatzen dut, eta normalean euskaraz hitz egiten dugu gure artean. Lagun artean ez hainbeste, baina saiatzen gara. ■



**JOANE TELLERIA
GARMENDIA
LAZKAO**

«Egunerokoa
euskara lehen
aukeratzat
izatea erabaki
kontzientea
da»



IZARO VILLARREAL LAUROBA

Lana, ikasketak, lagunarteko zein familiarteko harremanak eta eguneroko jarduerak euskarari oinarritzen ditu Joane Telleriak, eta hizkuntza-ohitura naturaltasunez mantentzen duen bezala, aurtengoan ere naturalki erabaki du Euskaraldian izena ematea.

1 Euskara ulertzen duenarekin euskaraz aritzea erabaki kontzientea da, eta hizkuntza entzunaraztea eta erabilera normalizatzea dakar horrek. Iruditzen zait, euskarak biziraun dezan, ezinbestekoa dela jarrera aktiboa hartu eta euskara lehen mailako aukera gisa hartzea. Hautu hori egiten dut nik, eta elkar elikatuz gero, kate-erreakzio positiboa sor dezakeela iruditzen zait.

2 Aurreneko edizioa erronka modura hartu banuen ere, bigarren modu kontzienteagoan jardun nintzen, nire hizkuntza-jarrerak besteengan izan dezaketen eragina kontuan hartuta. Euskaraldiari dagokionez, esango nuke gizartearen normalizatu eta egonkortu den ariketa dela.

3 Gainontzean euskaraz bizi naiz, eta naturaltasunez mantentzen dut nire hizkuntza-ohitura. Euskaraldian parte hartzea aukera polita da norberaren jarrera aztertzeko, hausnarketak partekatzeko eta kontzientzia areagotzeko. Konpromisoa berresteko balio dit. ■



GARAZI AROZENA AZAROLA BEASAIN

«Euskaraldiari esker eguneroko hainbat ohitura aldatu ditut»

ARIANE VIERBÜCHER ITURBE

Ikusentzunezko Komunikazioa ikasten ari da Garazi Arozena beasaindar gaztea, Mondragon Unibertsitatean, Aretxabaletan. «Gustura» ari dela kontatu du. Komunikazioaren arlo desberdinen artean irratigintza eta idaztea ditu gustukoak momentuz, eta euskara «komunikaziorako ezinbestekoa» dela dio. Aittu! euskara elkartearen, Beasaingo Joaldunetan, bertsoetan,... tokiko kultur elkarte desberdinetan parte hartzen du Arozenak.

1 Ahobizi izateko hautua egin dut aurtengoan ere. Ahobizi aukeratu dut, momentu oro euskaraz hitz egiteko gaitasuna dudalako, eta gainera prest nagoelako Belarriprest direnei euskaraz hitz egiteko eta haien ahalegina sustatzeko eta laguntzeko. Euskaldun bezala, ardura-ariketa bat ere bada niretzat.

2 Honekin Euskaraldian parte hartzen dudana hiru egitaraldia izango da. Ekimen honek lagundu dit euskararen erabilera kontzienteagoa egiten, eta lehen lehenengo hitza gazteleraz egiten nuen hainbat lekutan, orain euskaraz egiten.

3 Orokorrean euskaraz bizi banaiz ere, Euskaraldiari esker, egunerokotasuneko hainbat ohitura aldatu ditudala jabetu naiz. ■



Energiarekin egiten dugun gauza bera egiten dugu euskararekin:

**AHALIK ETA MODURIK ONENEAN
BANATZEN LAGUNTZEA.**



ELEKTRA OLABERRIA www.grupoelektra.es

Harizti Industrialdea · N-1 Errepidea · 20212 Olaberria

Belarriprest

Aldiro erabakitzen dute euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, beti ez dute euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek beraiei euskaraz hitz egitea nahi dute, eta horixe eskatzen diete, esplizituki.

1

Zergatik aukeratu duzu Belarriprest izatea?



2

Aurrekoetan izan baldin bazinen, aldatetaren bat nabaritu zenuen? Eta lehen aldia baldin baduzu, zer espero duzu?



3

Ahobizi izateko bidean, helbururik jarri duzu, edo nola ikusten duzu pertsonalki zure garapena?



Elkar mugituz
egingo duguz

943 72 13 03
ezkio.eus



HUMBERTO DIAZ DE MENDIBIL ITSASO

«Prest nago edozeinek niri euskaraz hitz egiteko»

TERE MADINABEITIA

Donostiarra da izatez Humberto Diaz de Mendibil, baina duela hiru urte Itsasora etorri zen bizitzera. Euskaltzalea da, eta euskara ikasten ari da azken aldian, Ordiziako Goiztiri AEK euskaltegian. Aurten, euskara ikasteko prozesu horretan, pausoa eman du, eta Belarriprest izateko eman du izena Euskaraldian.

1 Ni prest nago edozeinek niri euskaraz hitz egiteko, eta horregatik aukeratu dut Belarriprest rola. Esaten ditena ulertzen ez badut, eskatuko dut errepikatzeko edo gaztelaniaz esateko, baina saiatuko naiz ulertzen eta, ahal badut, euskaraz erantzuten.

2 Aurreko edizioetan ez nuen parte hartu. Niretzat lehenengo Euskaraldia izango da hau, eta parte hartuta, nik espero dudana da Belarriprest rolean eroso sentitzea.

3 Txikitan, eskolan ez nuen D ereduak ikasi, baina bane-kien pixka bat euskaraz. Iaz euskaltegian izena eman nuen, eta euskara-maila hobetu dut horrela. Pixkanaka noa aurrera, eta iritsiko da Euskaraldiaren hurrengo edizioetan Ahobizi izateko momentua. Nik ikasten jarraituko dut behintzat. ■



© 943 72 25 13
Labeaga, 2 - URRETXU

MARISA YAÑEZ BEASAIN

«Euskaraz dakienak, nirekin ere euskaraz egitea nahi dut»

ARIANE VIERBÜCHER
ITURBE



Belarriprest rola hartzea erabaki badu ere, ederki moldatzen da euskaraz Marisa Yañez beasaindarra. Duela 10 bat urte hasi zen euskaltegian euskara ikasten, eta lanak, familiak eta bestelako ardurek utzi dioten neurrian eutsi die ikastaroei. Yañez bitxitegian erretiroa hartu zuenetik, hutsik egin gabe joaten da euskaltegira.

1 Belarriprest izatea aukeratu dut, nahiz eta hitz egiteko gai naizen, segurtasun falta sentitzen dudalako oraindik ere.

2 Aurreko edizioetan ere parte hartu dut. Egunerokoan, ahal dudan guztietan euskaraz egiten dut, nahiz eta batzuek oraindik, nahiz eta nik euskaraz egiteko ahalegina egin, gazteleraz erantzuten didaten. Nire ahoskeragatik izan daitekeela uste dut. Euskaraldi honetan, Belarripresten txapa soinean eramatearekin, aurrean dudanari euskara ulertzeko gai naizela erakutsi nahi diot. Horrela, euskaraz dakienak baina nirekin lehen hitza gazteleraz egiteko ohitura duenak, nirekin ere euskaraz egitea nahi dut.

3 Euskara ikasten jarraitzea da nire buruari jarri diodan helburua, presiorik gabe, egunero gozatuz prozesu honetaz. Eta egunen batean, Ahobizi rolean izena emateko segurtasun nahikoa lortuko dut. ■



FLAVIO BANTERLA BORZAGA ZALDIBIA

«Egunerokoan euskara lehenesten jarraitu nahi dut»

IZARO VILLARREAL LAUROBA

Duela hiru urte Italiatik Zaldibiara etorri zen bizi izatera, eta zaldibiarra sentitzen da Favio Italiano Borzaga. Bost urte daramatza euskara ikasten, eta aitortu du euskara egunerokoan erabiltzeko asko laguntzen diola hizkuntza gutxika-gutxika menperatzen.

1 Esango nuke gero eta gehiago ulertzen dudala euskara, eta aurtengo Euskaraldiko edizioan beste behin ere Belarriprest gisa parte hartzeak aukera ematen dit neure burua euskaraz hitz egiten ahaleginarazteko, eta gainontzekoek euskaraz egin diezadatelako behartzeko.

2 Bai, Euskaraldian urtero animatu izan naiz erronka pertsonal honetan nire aletxoak jartzera. Aldaketa nabarmenena norberak bizitzen duena da. Pertsonalki, ekimen honekin gehiago ausartzen naiz euskaraz egitera, txapa soinean jantzita jendeak badakielako euskara ikasten ari den pertsona naizela.

3 Bide naturala da niretzat egunerokoan euskara erabiltzea. Orain, gainera, haur txikiak dauzkat eta beraien bitartez asko ikasten ari naiz. Lanean ere ahalegintzen naiz euskaraz egiten. Horregatik, esango nuke bide naturalean ikasten ari naizela. Printzipioz, beraz, horrela jarraitzea eta egunerokoan euskara lehenestea dira helburu nagusienak. ■



Katea kalea, 5
Beasain

www.mueblesibaiondo.com

943 16 40 40
639 631 640



Entitateak

Arigune izendapenaren ordean, 'Entitateak' izango dira aurten Euskaraldiarekin bat egiten duten enpresa, erakunde eta establezimenduak. Euskararen erabilera sustatzeko prestakuntza eta baliabideak kideen eskura jarriko dituzte.



AMANE ZUMARRAGA

«Euskaraz ahalik eta gehien egitea da kontua»»

TERE MADINABEITIA

Urretxuko mugatik metro gutxira dago Amane emakumezkoentzako arropa denda, Zumarragako Geltokietako Plazan. Ane Salamerok ireki zuen duela sei urte, gaztetatik merkataritzaren alorrean besteentzat urte askoan lan egin ondoren, «amets bat beteta».

1 «Euskara bultzatu eta sendotzeko» helburuarekin erabaki du Ane Salamerok Amane denda Euskaraldian Arigune izatea, espazio horiek sortu zituzten lehen edizioan bertan. Aurten, hirugarren aldiz izango da Arigune denda hori.

2 Amanen beti euskaraz izaten da lehen hitza, eta Arigune izateko ez du neurri berezirik hartuko Salamerok. «Normaltasun osoz eta bat-batean egiten den zerbait da. Ni naturaltasunez jarduten naiz bezeroekin euskaraz, eta ondo ateratzen da». Hala ere, euskaraz erantzuten ez diotenak beti «errespetu osoz» hartzen dituela zehaztu du. Dendatik kanpo, gainera, Ahobizi da.

3 Amane denda Arigune bihurtuta, bere aletxo jarri nahi du Salamerok. «Euskaraz ahalik eta gehien egitea da kontua». ■

1

Zer dela eta sortu duzue? Lehen aldia da ala aurrekoetan ere egin duzue?



2

Neurri berezirik edo arau zehatzik jarriko duzue ariketa hobeto atera dadin?



3

Zer ondorio uztea edo zer aldaketa eragitea espero edo nahi duzue?


Optika Mikel
OPTIKARI OPTOMETRISTA
AUDIOPROTESISTA
DIPLOMADUNA
UKIPEN LENTEEN EGOKIERA
Kol. zkia. 25403 (A.N.A. 2179)
www.optikamikel.com
☎ 943 88 09 35
Elosegi, 5 LAZKAO

ñausti hartz klinika
1998tik
Estiñu Juárez Aldanondo
402 Elk.Zkia.
Maitane Uranga Txintxurreta
904 Elk.Zkia.
Jose Gonzalez Barrera
1.071 Elk.Zkia.

Joan Iturralde, 3 20200 Beasain
Tel. 943 88 46 28


barazki eta fruta s.l.
T 943 72 60 09
M 665 734 396
Labeaga, 3-5 URRETXU
T 943 78 62 69
Buztinzuri kalea 6 behea
ANTZUOLA



ITOIZ BEASAIN

«Euskaldunak gara eta euskaraz bizitzen saiatzen gara»

ARIANE VIERBÜCHER ITURBE

Beasaingo herrigunean dago Itoiz emakumezkoen arropa eta osagarri denda. Nerea Garmendia da negozioaren nagusia eta Ikerne Urrestarazu lankidea.

1 Itoiz arropa dendak Euskaraldiaren aurreko edizioetan ere parte hartu zuen, eta aurtengoan ere «zalantzarik gabe» Arigune izateko eman dute izena. «Euskaldunak gara eta euskaraz bizitzen saiatzen gara, ahal dugun heinean», arrazoitu dute entitatearen parte hartzea. Iruditzen zaie «oso garrantzitsua» dela hirugarren sektorean euskaren erabilera sustatzea, dendariengandik hasita. «Guk lehenengo hitza euskaraz egiten dugu beti», azaldu dute bi lankideek.

2 Euskaraldiaren baitan euskara sustatzeko neurri berezirik ez dute hartu. «Natural-natural egiten dugu euskaraz, gure egunerokoaren, gure bizimoduaren parte baita euskara. Beraz, orain arte bezala, gure ohiturari eutsiz, bezero guztiekin euskaraz hitz egiten saiatuko gara».

3 Euskararen normalizazioa helburu duen Euskaraldiaren edizio berri honek zer ondorio uztea espero duten galdetuta, «euskararen erabileran aurrerapausoak ematen jarraitzea» izan da eman duten erantzuna. Uste dute, «orokorrean, jendeak, euskara gehiago erabiltzea lortu beharko genukeela». ■



LEGAZPIKO UDALA LEGAZPI

«Bilera guztiak euskaraz egitera jotzea espero dugu»

IZARO VILLARREAL LAUROBA

Inma Urtelai Ezkibel euskara teknikariak azaldu du Euskaraldia sortu zenetik dabilela Legazpiko Udala dinamika honetan Arigune gisa euskara lehenesten. Aurtengoan ere «bide naturaletik» erabaki dute bertan parte hartzea, eta udalak hartu dituen hiru konpromiso nabarmendu ditu: langileak ariketa egitera animatzea, langileei baliabideak eskaintzea, eta udalak ariketa egingo duela ikusaraztea.

1 Udaletxean euskara da gure lan-hizkuntza, baina, oro har, langileen arteko harremanak euskararen oinarritzen diren arren, badira gazteleraz eraikitzen diren zenbait harreman edo lan-bilera. Jarrera horietan jarri nahi dugu indarra, eta horietan ariketa behar bezala egitea sustatuko du Udalak.

2 Lan-harremanetan eta lan-bileretan dauden zenbait ohitura aldatzeaz gain, udal organoetako bilerak ere euskaraz izan daitezten ahaleginduko da Udala (Gobernu Batzordea, bozeramaile batzordea, Osoko Bilkura...). Gainera, ahalduntze-saio bat ere antolatuko du Udaltzaingoko kideekin batera, euskara ahalduntzeko.

3 Ariketa ondo egiteaz gain, aurrerantzean ere gaztelanira jotzeko ohitura gaitzetea espero dugu, eta, bide horretan, ulermena bermatuta egongo den bilera eta foro guztiak euskaraz izatea. ■

EUSKARALDIA
Legazpi bizirik,
euskaraz mugituz

Tel: 943 73 70 30
Fax: 943 73 72 00
www.legazpi.eus

LEGAZPIKO UDALA

MATTIN
elektrizitatea

Mantenimendua
Etxeko instalakuntzak
LED argiteria

Tel.: 627 505 687
mattinelektrik@gmail.com

Jasogailu zerbitzua

«Azkena ikusi dudana filma 'Faisaien irla' izan da, gogorra eta hunkigarria»



Mikel Albisu

Legorretako eLegune euskara taldekoak Euskaraldia prestatzeko lanetan buru-belarri ari dira, herriko beste eragileekin batera. Tartean dira UEMA, udala eta eskola. Antolatu dituzten ekitaldien zerrenda, berriz, luzea da: izen-emate eta informazio mahaia jarri, txapak banatu, gurasoentzako formazio-saioa, Euskaraldiko abestiaren koreografia dantzatu, mural bat margotu, adin guztientzako jolasak, parte-hartze saioa... Nekane Iturrioz Amondarain (Legorreta, 1965) eLegunea euskara elkartearen kidea da lan horietan ari direnetako

NEKANE ITURRIOZ AMONDARAIN LEGORRETAKO ELEGUNE EUSKARA TALDEKO KIDEA

MIKEL ALBISU SOROA

LEGORRETA

bat. Bera psikologoa da ikasketaz, eta ogibidez Goiztiri AEK euskaltegiko irakaslea.

Zein da Legorretako euskararen indargunea?

Herritar gehienok euskara ezagutzen dugula, eta eragileok dugun dinamika.

Zerk sortzen ditu kezka gehien?

Euskaldunon artean dagoen euskal kontzientzia ezak. *Euskahaldundu* behar dugu.

Ze zaletasun dituzu?

Ibiltzea, irakurtzea, gogoko ditudan pertsonekin terraza batean kontu-kontu aritzea...

Pelikula bat edo telesail bat.

Azkena ikusi dudana *Faisaien irla* izan da, gogorra eta hunkigarria.

Liburu bat.

Angela Davisen *Askatasuna, etengabeko borroka bat*.

Musika talde edo abeslari bat.

Bat esate arren, Anari.

Abesti bat.

Anarirekin jarraituz, *Vinu, cantares y amor*.

Oporretarako leku bat.

Euskal Herriko kosta.

Zer gosaltzen duzu?

Kafe hutsa.

Kolore bat.

Berdea.

Inoiz ahaztuko ez duzun eguna.

Kotxea lehenengo aldiz hartu nuen eguna.

Jaso duzun oparirik bereziena.

Bat aipatze arren, ikasleek egindako bertso idatzi bat.

Amets bat.

Euskal Herri euskalduna.

Bizitzako plazer txiki bat.

Egunero niretzako tartetxo bat izatea.

Goierriko txoko bat.

Enirio ingurua.

Legorretan biziko ez bazina...

Zumaian. ■





Konpromisoa
Berrikuntza
Etorkizuna



www.ampo.com

Bai Reformas

ERAIKUNTZAK - ERREFORMAK

ERRESTAURAZIOAK - BARNE DISEINUA



Goardia ind. 4 - Idiazabal 20213 943 88 76 40 - 677 577 339
info@baireformas.com www.baireformas.com





Goiberri

« Pizkunde berri bat bultzatu nahi dugu euskararentzat »

IDURRE ESKISABEL LARRAÑAGA

KONTSEILUA-KO IDAZKARI NAGUSIA

2022ko azaroaren amaieratik Euskalgintzako Kontseiluko idazkari nagusia da Idurre Eskisabel Larrañaga (Beasain, 1970) beasaindarra.

LOINAZ AGIRRE ELKOROBEREZIBAR

BEASAIN

Azkeneko Euskaralditik hona euskararen aurkako oldarraldiak ez dira amaitu, eta areagotzen ari dira.

Ez, zoritxarrez oldarraldiak ez du etenik. Ikusten ari gara nola epaiz epai euskararen normalizazioaren alde ezarritako zoru bat eraisten ari diren. Gainera, gizarte adostasun sozial handi baten aurka, ez baitugu ahaztu behar eraisten ari diren euskararen normalizatorako tresneria horrek gehiengo politikoaren babesa duela eta eragile sozialek (gehiengo sindikalak kasu) edota herritarrek, behin eta berriro berretsi dutela kontsentsu hori.

Oldarraldia ez da soilik judiziala.

Ez. Haren oinarrian ikusten dugu, baita ere, oldarraldi politiko bat eta oldarraldi mediatiko bat, sustatzen ari baitira dikotomia faltsuak, hala nola, euskararen normalizazioa lan eskubideekin lehian eta talkan jartzea. Enplegu publikoa egoki betetzeko baldintza zehatzak jartzea lanpostu mota horretara iristeko lehiaketa guztietan egiten da: lan hori ondo betetzeko eta herritarri zerbitzu egokia emateko ezagutza batzuk eskatzen dira. Euskararen ezagutza lan horiek egoki betetzeko baldintza da, herritarrei zerbitzua behar bezala ematekoa. Ez dago lan eskubideekin talkarik, beste ezagutza batzuk eskatzen direnean halakorik ez dagoen bezala.

Gero eta euskara gutxiago jakinda lor

daitezke lanpostuak. Administrazioan belaualdi berriak sartzen ari direnez, administrazioa erdalduntzeko arriskua dakar horrek?

Bai, atzerapauso handi bat gertatzeko arriskuan gaude. Batetik, administrazioa euskalduntzeko urratsetan atzerakada nabarmena litzatekeelako, eta hori sekulako kaltea da normalizaziorako eta hizkuntza-eskubideen bermerako. Bestetik, gizarteari ematen zaion mezuagatik: euskararen ofizialtasuna bera auzitan jartzen da, eta horrekin batera prestigio galera eragiten da. Minorizatutako hizkuntza batentzat oso kaltegarria da hori.

Nola aurre egin euskararen aurkako epaiei?

Batetik, EAeri dagokionean, Enplegu Publikoaren Legea aldatuta. Hau da, Katalunian eta Galizian bezala enplegu publikorako sarbidea izateko hizkuntza ofizial bien ezagutza eskatuta. Eta bestetik, progresibitatea bermatzeko salbuespen sistema bat txertatuta. Guztiz egingarria da. Esan bezala, Katalunian eta Galizian indarrean da eredu hori.

Kalera behin baino gehiagotan atara behar izan da. Iazko abenduan, 'Larrialditik indarraldira' adierazpena plazaratu zenuten, euskararen normalizazio eta biziberritze prozesuaren azken hamarkadetako susperraldia moteldu denaren zantzuak agerikoak egin direla azpimarratuz azken urteetan.

Bai, iazko azaroan Euskalgintzaren Kontseiluan batzen garen eragileok adierazi genuen euskara larrialdi linguistikoan dela. Kosta egin zitzaigun urrats hori egitea, norbere burua larri dagoela adieraztea ez baita urrats xamurra. Baina adierazle soziolinguistikoek hala erakusten digute, eta etorkizunera begirako joerek larritasun hori indartzen dute. Katalunian eta Galizian ere jada adierazi dute larrialdi linguistikoan direla katalana zein galiziera.

Hala ere, larrialdian gaudela esatea ez da inola ere etsipenerako dei bat, biktimismoan laketzekoa. Alderantziz, larrialdian gaudela diogu sendabidea badelako, suspertze ariketa eta bide bat egitea posible delako eta hori bultzatu nahi dugulako. Lehenago ere izan dira

«**Administrazioa euskalduntzeko urratsetan atzerakada nabarmena litzateke**»

«**Hizkuntza politiketan aurrerapauso sendo bat ematea ezinbestekoa da**»

euskara eta euskal hiztun komunitatea larrialdian, baina euskaltzaleen bultzadak, gizarte ekimenak, eta hark eragindako neurri politikoez ekarri dituzte susperraldiak ere. Kinka horretan gaudela adierazi nahi dugu larrialdiarekin. Hau da, indarraldia abiatzea ezinbesteko dugula, eta posible dela.

Susperraldia, nola?

Euskararen historia sozialean izan diren larrialdi horietan eragin diren susperraldiei 'pizkunde' deitu diegu. Ataka honetan hori bultzatu nahi dugu Kontseilutik: Pizkunde berri bat euskararentzat. Dudarik gabe, hizkuntza politiketan aurrerapauso sendo bat ematea ezinbestekoa izango da pizkunde berri hori gerta dadin, baina herritarrok egiteko garrantzitsua dugu horretan: geu gara alderdiek eta botere publikoek euskararen auzia lehen lerroa ekar dezaten eragiteko giltza daukagunak, pizkunde horren txinparta pizteko zotza daukagunak. Hori bideratzeko datozen hilabeteetan publiko egingo den lanketa bat ari gara martxan jartzen Kontseilutik.

Euskaraldia bezalako egitasmoek zertan lagun dezakete?

Dudarik gabe Euskaraldia pizkunde berri horretarako bide bat da. Hamai-ka egunez gure hizkuntza-praktiketan

arreta jartzea eta kontzientzia hartzea proposatzen digu herritarroi, gure hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskararen normalizazioan kide aktibo izateko bidea eskaintzen. Gonbidapen zabal bat ere bada, euskaraz seguru sentitzen diren horientzat edo ulermenera baizik iristen ez direnentzat, haiek ere honen guztiaren parte izan daitezten. Are, euskaltzaleok hainbatetan bizi dugun bakardade eta umezurztasuna hautsi eta ariketa kolektibo batean sartzen gaitu, komunitatearen indarra ematen digu. Eta, gainera, aitzakia izaten da euskararen auzia hedabideetan landu dadin, politikari eta erakundeek hizpide izan dezaten, erreferentziazko pertsonak beren ekarpena egin dezaten. Hori guztia ere garrantzitsua da lehentxeago aipatu dudana euskararen minorizazio egoeran begia jartzea, kontzientzia hartzea eta bestelako praktika batzuk bultzatzeko bidean.

Erakundeei zer eskatzen diezue?

Erakundeek ardura handia dute, jakina. Izan ere, euskara eta euskal hiztun komunitatea minorizazio egoeran daude, eta gurea bezalako gizarteetan politika publikoak dira minorizazio egoeretan dauden kolektiboaren egoera zuzentzeko eta berdintasuna bermatzeko tresna egokiena. Alde horretatik, euskararen aldeko hizkuntza politiketan paradigma aldaketa bat egiteko garaia da, aurrerapauso sendo bat egiteko, euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa eta erabilera erosoerako eremuen hedatzea eta garatzea ipar hartuta.

Kontseiluak zer egin dezake?

Kontseiluak erabateko ahalegina egingo du gizarte ekimenez erakundeei bide horretan laguntzeko. Duela 28 urte, euskararen biziberritzea bermatuko zuen akordio sozio-politiko amets zuela sortu zen Kontseilua. Orain, egungo larrialdi eta oldarraldi testuinguruan, oraindik eta zentzu handiagoa hartu du amets horrek, eta horretara gatoz, lehen aipaturiko pizkunde berri horren oinarri izango den akordio sozio-politiko berria proposatu eta bideratzera, esan bezala, ezagutzaren unibertsalizazio eta erabilerarako eremu erosoaren hedapena oinarri izango dituen. ■

Euskararen egoera ulertzeko gako batzuk

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak 11 gakotan laburbildu du, Euskaraldiaren atarian, hizkuntzaren gaur egungo egoeraz eta posizioaz jabetzeko ariketa. Bideo banatan plazaratu ditu.

AIMAR MAIZ
GOIERRI

1 Diagnostiko berria. Euskararen egoera ezagutzeko, diagnostiko berria egitea ezinbestekoa da, azken ikerketa guztiak ere kontuan hartuta. Azken urteotan azaleratu diren aldagai berriak txertatu beharko liriateke hor. Hizkuntza-gaitasuna, adibidez. Euskaldunak izan arren, herritar asko ez dira gai euskaraz lasai aritzeko, edo erdaraz bezain trebe eta eroso espresatzeko. Euskararen aldeko atxikimendua, berez positiboa den arren, ez da nahikoa euskara indartzeko.

2 Historia aztertu. Azken ehun urteetako euskararen historiak gainbehera, indarberritzea eta gelditze aroak izan ditu. Horiek historikoki aztertu beharrekoak dira. Euskara etxean jasotzeko joera galdu zen XX. mendean zehar. Galera prozesuan, ordea, Euskal Pizkundea salbuespena eta itxaropen aroa izan zen. 1960ko hamarkadan euskara batua, ikastolak, gau eskolak, euskal kantagintza berria eta beste hainbat ekimen sortu zituzten. XXI. mendean moteltzen hasi direla sumatu dute.



Arnasetik bideo sormen lehiaketa, 2023an.

3 Hizkuntza gaitasuna. Euskaraz erdaraz baino erosoago 12 lagunetik batek bakarrik egiten du, euskal herritarren %8ak (210.000 hiztun). Herritar bakoitzaren hizkuntza-gaitasunak erabakitzen du erabilera. Erdaraz errazago egiten dutenak hamar aldiz gehiago dira. Gehienek, gainera, erdara bakarrik dakite. Elebidunen multzoa 30 urtean asko hazi den arren, euskaraz errazago egiten dutenen kopurua ez da handitu.

4 Erabilera. Dagoen gaitasunerako, asko erabiltzen da euskara. Neurketen arabera, Euskal Herriko kaleetan entzundako 8 elkarrizketetatik bat zen euskaraz. Euskaraz dakitenek herritarrek %30 dira, baina erabilera askoz txikiagoa da: %13k erabiltzen du euskara erdara baino gehiago. Hitzun gaituen kopurua ikusita, euskara asko erabiltzen da, gaitasunak berez ekarriko lukeena baino gehiago.

5 Atxikimendua. Euskararekiko jarrera positiboa daukate euskaldunek, lotura estua eta atxikimendu handia. Euskararen alde ekimen asko egiten dira: eskolak, euskaltegiak, aldizkariak, egunkariak, irratiak, kultur taldeak, aldarrikapenak eta ospakizunak. Jarrera horrek eragina du gero hiztunen erabakietan, baita berez erdaraz errazago aritzen direnengan ere.



6 Hizkuntza bilakaera. Erdalduntzea indartsuagoa da euskalduntzea baino. Euskara etxean jaso zuten ia guztiek ikasi dute erabiltzen dute beste hizkuntza bat, eta askok erdara erabiltzen du gaur egun. Alderantziko joera askoz apalagoa da, eta salbuespenak dira. Gizarteko hizkuntza ekosistema orokorrak euskara higatu eta galarazi die etxean euskara jaso zuten askori.

7 Galeraren arrazoiak. Botere egiturek euskara ahultzen dute. Euskararen aldeko politikak egin arren zenbait lurraldetan, oro har erdara da nagusi lurralde osoan. Indartsuagoak dira erdalduntzea bultzatzen duten faktoreak. Hiztun gehienak erdaldunak dira, eta erdara nagusi den eremuetan bizi dira. Euskaldunak erdalduntzeko inertzia handiak daude; erdaldunak euskalduntzea bultzatzen duten joerak, aldiz, ia batere ez. Lan munduan ere gaztelania eta frantsesa ezinbestekoak dira; euskara, batzuetan bakarrik. Komunikabideetan eta kultur kontsumoan askoz eskaintza handiagoa dago erdaraz.

8 Belaunaldi berriak. Gurasoak baino euskaldunagoak datoz haurrak, euskalduntzearen alde eta euskarazko hezkuntzaren alde egin den lanagatik. Hizkuntza gutxituen artean, berezia da ahalegin eta egoera hori. Duela 50 urtetik, guraso euskaldun gehienek seme-alabak euskaldun hezteko ahalegina egiten dute, eta ez diren guraso askok ere bai. Oraingo haurrek euskara gehiago jasotzen dute gurasoek baino.

9 Lurraldea eta naturaltasuna. Testuinguruak ez dira neutroak: ingurune batzuek euskararen alde bultzatzen dute eta beste batzuek erdararen alde. Arnasguneetan euskaraz bizitzea korrontearen alde joatea bezalakoa da; erdara nagusi den eremuetan euskaraz bizi nahi izateko, aldiz, indar handia egin behar da aurkako noranzkoko berdintzeko, eta oraindik handiagoa aurrera egiteko.

10 Arnasguneen garrantzia. Hamar biztanletik bakarra bizi da euskara nagusi den udalerrietan edo euskara eta erdara pareko direnetan. Baina herri horietan bizi da euskara gehien erabiltzen dutenen multzorik handiena. Gaur egun euskaraz egiten denaren bostetik bi udalerrri euskaldunetan egiten da. Erdara nagusi den eremuak euskalduntzen ere eragin handia dute biztanle horiek. Euskara indartsuago dagoen lurralde-eremu horiek bereziko garrantzia dute euskararen biziraupenerako eta garapenerako. Ahultzen ari dira, ordea, eta urte gutxian desagere daitezke.

11 Etorkizunari begira. Olatu berri baten beharra dauka euskarak. Minorizazio gorrian dago gaur egun, bai gaitasunean, bai erabileran, bai transmisioan, bai hizkuntza-bilakaeran, eta bai lurralde-nagusitasunean. Ahultasunean sakontzea berekin dakar horrek. Hizkuntza-heriotza egoeratik gertuago dago elebitasun parekide baten egoeratik baino; zer esanik ez nagusitasun egoeratik.

Oskarbi
o i n e t a k o a k

Online denda
www.zapatosobi.com

Hamaikako baten motibazioak

Euskaraldiaren hizkiak beste kidek osatu dute hamaikakoa. Hemen, Ormaiztegikoa.



Ormaiztegiko hamaikakoa, Euskaraldirako. Angel Elortza

« Musika euskaraz egitea atek ixtea zela zioten. Azkenaldian hasi gara antzematen hori ez dela hala. Euskaraz adieraztea norberaren nortasuna finkatzea ere bada»

IÑAKI REZUSTA GARRIDO

« Gure etxeko ama hizkuntza ez bada ere, ahizpak eta biok beti egin dugu elkarrekin euskaraz»

EDURNE BLANCO MOREDA

« Garrantzitsuena ez da gaur egungo industrian dagoen euskararen erabilera urria, euskara zabaltzearen helburuarekin eraikitzen ari den bidea baizik»

OIHANE MURUA DE LA MATA

« Euskara euskaldunon ondarea da. Hizkuntza bat izateaz gain, euskal historiaren, ohituren eta baloreen gordailu ere bada. Euskaraz bizitzea, bizitzeko modu bat da. Gure erantzukizuna da altxor preziatu honen transmisioa, euskarak biziraun dezan»

LUR ZUFIRIA ARANGUREN

« Ez diezaioGUN euskarari mugarik jarri, ezta gure bihotzei ere. Egunero, hitz bakoitza aukera bat da euskara bizirik mantentzeko. Bizi dezagun Euskaraldia, eta elkarrekin egin dezagun bidea!»

BILAL DHAILI DOURHBACHE

« Nire egunerokoa, bai familiarrean bai lagunartean, beti daukat euskara ahoan»

ASUN MENDIZABAL SODUPE

« Euskal Herria da gorputza eta euskara bere bihotza; bihotzik gabeko gorputzak ezin du bizi»

KEPA JAKA NUÑEZ

« Euskara izan da lanerako nire erreminta nagusia, baserri-mundutik laborategietara»

IÑAKI LETURIA YURRITA

« Biarritzen, Tuteran eta Bastidan ere egin deigun euskaraz»

KEPA ISASMENDI GABILONDO

« Euskaldunon ondare kulturalari jarraipena emateko erabiltzen dugun hizkuntza da euskara»

AITZOL KALLEJO UNANUA

« Ba al dago ezer politagorik gure amonek eta gurasoek erakutsitako hizkuntza eder hau baino? Euskara ahoan eta mundu guztira zabaltzeko indarra»

ARANTZAZU ZABALETIA IZAGIRRE

« Euskara Euskal Herrian sustrai handi bat da, kultura edo ohiturak bezala, zaindu egin behar da»

MILA REPISO MORENO

Gerriko

Elosegi, 16 - LAZKAO ☎ 943 88 65 00 Faxa: 943 88 79 71
liburudenda@gerriko.eus 📱 www.gerriko.eus

NEU albaitaritza

Irati Apalategi
Albaitaria Ekografian espezializatua

Akupuntura eta txinatar medikuntza tradizionala

24 orduko urgentzi zerbitzua

www.neualbaitaritza.eus
Nafarroa etorbidea, 1 Beasain
943160675 / 665741327 ecoirati@hotmail.com

www.artzai-gazta.eus

ARTZAI GAZTA

BENETAKO ARTZAI GAZTA

Gure Latxa artaldearen esne gordinez egindako gazta

IDIAZABAL  **BASERRIKOIA**

Kale Nagusia,37 - Idiazabal
T: 943 18 71 29

 Euzko Jaurlaritzak / Gobierno Vasco

 Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra

 Europako Batasuna / European Union

ezarri

Euskarak merezi du, animatu!

Ametsak mosaikoz eginda daude

Zubierreka Industrialdea 58
20210 Lazkao - Gipuzkoa
ezarri.com

MARTIN ARAMENDI ARANA UEMAKO LEHENDAKARIA ETA ATAUNGO ALKATEA

2019ko urteaz geroztik Ataungo alkate eta 2023ko irailaz geroztik UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko lehendakaria da Martin Aramendi Arana (Ataun, 1970).

IZARO VILLARREAL LAUROBA

ATAUN

«Euskarak biziraun dezan, arnasmuneak babestu behar dira»

Zertarako balio du Euskaraldiak?

Ariketa kolektibo bat da, eguneroko harremanetan euskara lehenetsita, euskararen erabilera areagotzea helburu duena. Hamaika eguneko praktikaldian oinarritzen da, eta saiakera horren ondoren, ohitura berriak errotu eta horiei eustea bilatzen du. Asmo oneko ekimena da, nahiz eta benetako eragina neurteza zaila den.

Ekimen honekiko ezkortasuna dagoela esango zenuke?

Ataun bezalako herri txikietan, euskara hutsean bizi diren zenbaitek zalantzan jartzen dute ea beharrezkoa den txaparen bidez adieraztea euskaraz egin dezakezula haiekin, edo eurek aurreneko hitza euskaraz egingo dutela. Herri txikietan, ordea, egoera ere aldatzen ari da: gero eta jende gehiago da euskara ez dakiena, ikasten ari dena edo jakin arren erabiltzen ez duena. Jende horri begira, beraz, garrantzitsua da euskara hutsean bizi garenok ere Euskaraldian parte hartzea.

Zein da Euskaraldiak udalerrri euskaldunetan duen harrera?

Ez dut udalerrri euskaldun guztien errealitatea hainbeste ezagutzen; bai, ordea, Ataungoa. Pertsonalki, aurreko aldietan baino harrera hobea izaten ari dela sumatzen ari naiz, nahiz eta gero ikusi

egin beharko den zer dioten datuek. Aurrekoetan kosta egin zitzaigun herritarrak aktibo mantentzea, eta udaletik ibili ginen kanpainaren berri ematen eta zegozkion lanak egiten. Aurtengoan, baina, batzorde bat sortzea lortu dugu, zortzi-hamar pertsonakoa.

Goierriren kasuan, ez daukat daturik, baina esango nuke emaitza ona duela ekimen honek eskualdeko herri hauek. Herritarrek ondo erantzuten dutela iruditzen zait, nahiz eta denetik dagoen: batzuek benetan sinetsita parte hartzen

« Arnasmuneak atzeraldian sartuta daude, eta hori geldiarazi eta irauli behar da »

« Beharrezkoa da herritarrak ahalduntzea eta guztiek ezagutza soziolinguistikoa izatea »



Aimar Maiz

dute, eta beste batzuek, berriz, modu zabalago batean jokatzeko dute.

Nola bizi duzu euskararen egungo egoera?

Kezkatuta. Kezkatuta eta atsekabe puntu batekin. Euskara larrialdian dagoela frogatu dute soziolinguista eta hizkuntzalari adituek, eta hori bera nabarmendu du orain Europako Hizkuntza Gutxituen Sareak. Euskara larrialdian dago, eta datozen urteetan hartzen diren erabakiek erabat baldintzatuko dute etorkizuna.

UEMATik uste dugu nahitaezkoa dela arnasmuneak bere horretan mantentzea. Arnasmuneak ere atzeraldian sartuta daude, eta atzeraldi hori geldiarazteari eta ahal dela iraultzeari ematen diogu garrantzia, arnasmuneak sendotu eta babestuta. Izan ere, horiek galtzen baiditugu, euskara ere azkenetan izango da, eta zeharo kezkatzen nau horrek.

Asko galtzen ari gara herri desberdinetan, handik eta hemendik: bizimodua aldatzen ari da, eta baita kontsumo- eta



kultura-ohiturak ere, eta kontrako korronte handiak ditugu. Hori nola geldiarazi eta belaunaldi gazteenei nola transmititu pentsatzeak kezkatzen nau. Ematen du herri txikietan dena eginda dagoela, baina hemen ere asko dago egiteko eta aldatzeko.

Euskararen erabilera ere nabarmen jaitsi da zenbait tokitan.

Ikusten ari gara erabilera gabezia handia daukagula. Azken urteetan administrazioa euskalduntzen eta zerbitzuak euskaraz ematen ahalegin handia egin bada ere, hor ere gabeziak daude; dagoeneko ikusi da epaileen legeak interpretatzeko moduak orain arte egindako lana zalantzan jarri duela. Hor, iruditzen zait beharrezkoa dela gero eta indar handiagoa hartu duen Enplegu Publikoaren Legea aldatzea. Horretarako, baina, lehenbizi, tramitatu egin behar da, Legebiltzarrean eztabaidatu, eta gero, onartu. Uste dut beharrezkoa dela hori azken 30 urteetan egindako urratsetan atzera egin nahi ez badugu. Adminis-

trazio batzuk dagoeneko hasi dira epai horiek saihesteko neurriak apaltzen. Hortaz, hobe da legea aldatzea eta ondoren legez babestea.

UEMATik horretan ari gara. Gure ustez, beharrezkoa da herritarrak ahalduz, alegia, herritar guztiak ezagutza soziolinguistiko minimoa izatea, bai herriko egoerari buruz, eta baita hizkuntza-ohiturei buruz ere. Diskurtso hori zabaldu ahal izateko, *Hedatu* egitasmoa abiarazi dugu eskoletan, berorietako ikasleekin, irakasleekin eta gurasoekin lan eginda. Azken batean, aipatutako larrialdiari erantzuteko aparteko neurriak behar dira, eta hor apustu egin behar dugu, hau aurrera aterako dugula eta egungo egoerari buelta emango diogula sinesten badugu behintzat. Behin eta berriz aipatzen dugu 'Euskararen aldeko olatu berria' delakoa, eta hori aktibatzea lortu behar dugu eragile sozialen eta herritarren artean, herritarren kontzientzia astindu eta geuretik emanda. **Zeintzuk dira horren arrazoi nagusiak?**

Hizkuntza-politika bat aplikatu da Euskal Autonomia Erkidegoan. Politika bat eta bera. Soziolinguistek eta hizkuntza-politikan adituek diotenez, baina, egoera soziolinguistiko bakoitzari dagokion hizkuntza-politika aplikatu behar zaio. UEMATik ere garrantzitsua deritzogu herri bakoitzaren egoeraren berri izatea eta horren arabera hizkuntza-politikak martxan jartzea. Egia da arnagune diren herrietan, egoera eta zailtasunak antzekoak izanda, guztietan aplikagarria izango den hizkuntza-politika egin daitekeela. Horretarako, baina, garrantzitsua da diagnostiko on bat egitea, gero neurriak hartu ahal izateko. Zentzu horretan, eta Iñaki Iurrebasoren tesiaren ondorioz, aplikazio bat sortu du UEMAK. Kide den udalerririk bakoitzari bere datu soziolinguistikoak helaraziko zaizkio, datuak ahalik eta era xeheenean jasoko dituen fitxak banatuko zaizkio. Aplikazioak, gainera, aukera ematen du urtetik urtera moldatzeko eta emaitza berriak ateratzeko. Tresna oso erabilgarria izango da, epe motzean behintzat.

Euskararen oldarraldi judiziala ere ia egunero da albiste.

Hasiera batean gauza puntuala zela ematen zuen arren, konturatu gara egitura oso bat dagoela atzean. Hau da, ondo antolatutako oldarraldia dela. Termino futbolistikoetan hitz eginda, etxetik kanpo jokatzeko tokatzen zaigun partida da, etxekoaren aldeko epaiarekin, gainera. Garrantzitsua da, horren aurrean, aurrez aipaturiko Enplegu Publikoaren Legea bezalako neurriak aldatzea, eta politika egiteko daukagun gaitasunarekin ahalik eta gehien blindatzea. Ez dakit erabat blindatzea posible izango ote den, auzitegiak eta epaileak gure gainetik daudelako beti, baina uste dut badela hor egitea tokatzen zaigun lan juridikoa, ahalik eta azkarren heltzeko modukoa.

Etorkizunari begira, zer ikusten duzu?

Etorkizun beltza da, baina badira itxaropenerako zantzuak. Euskara egoerarik txarrean egon denetan ere, 1960ko edo 1980ko hamarkadetan, esaterako, herrietan halako ekimenak sortu dira eta orain ere badirudi badela lehen aipaturiko olatu hori sortzeko aukera. Olatu iraunkorra izan behar du horrek. ■

EUSKARALDIKO AGENDA

ALTZAGA. Maiatzak 10. Txapa banaketa, plazan, 10:00etan. **Maiatzak 15.** Hasierako ekitaldia, 19:00etan, plazan.

ARAMA. Maiatzak 11. Txapa banaketa, plazan, 13:00etan. **Maiatzak 15.** Hasierako ekitaldia, 19:00etan, plazan.

ATAUN. Maiatzaren 15era arte, txapak jasotzeko aukera, udaletxean. **Maiatzak 16.** Ekitaldia: haurren bertsoak, Eate abesbatza, Gaztelekuko koreografia, Otsoak dantza taldea, 18:00etan, San Martingo plazan. **Maiatzak 23.** Segurako Xirikara taldearen Zopa antzezlan, 20:00etan, Herri Antzokian.

EZKIO-ITSASO. Maiatzak 11. Hamaikakoaren aurkezpena eta txapa banaketa, 13:00etan, Itsasoko plazan. **Maiatzak 12.** Txapa banaketa, zozketa, abestia eta dantza, taldeko argazkia eta mokadua, 19:00etan, Anduagako udaletxe aurrean. **Maiatzak 24.** Euskaldungak umorezko ikuskizuna, 19:00etan, udaletzeko ganbaran.

GABIRIA. Maiatzak 15. Hasierako ekitaldia, 17:30ean, plazan.

IDIAZABAL. Maiatzak 15. Hasierako ekitaldia, 19:00etan, plazan.

ITSASONDO. Maiatzak 9. Txapa banaketa, 19:00etan, plazan. Maiatzaren 14an, grafiti tailerra haur eta gazteentzat, 16:30ean, plazan. **Maiatzak 15.** Hasierako ekitaldia, 19:00etan, plazan.

LEGORRETA. Maiatzak 15. Euskaraldiko leloa prestatutako pareta batean pintatuko dute. **Maiatzak 20.** Zein da euskararen egoera Legorretan? Zer gehiago egin dezakegu? parte-hartze saioa. **Maiatzak 25.** Gure bihotzaren taupadak abestiaren

EUSKARALDIKO EGITARAU BEREZIA BEASAINEN



Maiatzak 9. Zuhaitz Gurrutxagaren *Futbolistok* bakarrizketa saioa. 20:30ean, Usurbe Antzokian,

Maiatzak 15. *Belarriprest* bakarrizketa eskainiko du Amaia Buenok. Doan. 19:00etan, Usurbe Antzokian, **Maiatzak 16.** Porrotx eta Marimotsen jaialdi herrikoa. 18:00etan, Loinazko San Martin plazan.

Maiatzak 21. Xirikara taldearen Zopa antzerkia. 19:00etan, Erauskin plazan (eguraldi txarra bada, Loinazko San Martin plazan).

Maiatzak 22. Magia poteoa Imanol Ituñorekin. 19:30ean, kaleetan zehar. **Maiatzak 23.** *Ez Dok Hiru* antzerki akustikoa. 20:30, Usurbe Antzokian.

koreografia dantzatu eta eragile guztien artean idatzi bat irakurri.

ORDIZIA. Maiatzak 15. Kale animazioa, 18:00etan, erdigunean. Azken txapa banaketa, 18:00etan. Txupinazoa, 19:00etan. Herriko hiru emakume musikagileren kontzertua, 19:30ean, plaza azpiko arkupeetan. **Maiatzak 16.** Euskaraldiko abestiak kantatu/dantzatu ikastetxeetako haurrek, 10:00etan, JM Barandiaran plazan. Ikasleen kartel banaketa herriko establezimenduetan. Kantujira, Kantazak eta Musika Eskolako ikasleekin, 19:00etan, Alde Zaharreen zehar. **Maiatzak 21.** Testu irakurketa eleanitza, herriko hizkuntza ezberdinen erakusgarri, 19:00etan, Barrena kanpoko plazan. **Maiatzak 25.** Euskaraldiko amaiera ekitaldia, Plaza Nagusian.

ORMAIZTEGI. Maiatzak 9. Produktu salmenta eta izen-emate mahaia, 18:30-19:15, udaletxe inguruan. **Maiatzak 15.** Gure bihotzaren taupadak euskaraz dira dantza eta taldeko argazkia, 15:30ean, San Andres eskolan, eta 19:00etan, plazan. Murala sortzea eta aurpegi margetzea, 18:00etan, plazan. **Maiatzak 16.** Hika poteoa, Ingo! Taldeak girotuta, 19:15ean, udaletxe aurretik hasita. **Maiatzak 23.** Bertso poteoa, 19:30ean, Pio eta Txistu tabernetan. Bertso afaria Aratz Igartzabalekin eta Eneko Araiztegiarekin, 21:00etan, Baso-Txulo elkartearen. **SEGURA. Maiatzak 16.** Bingo musikatua, 19:00etan, plazan. **Maiatzak 21.** Jon Iturriozekin koplak tailerra eta mokadutxo, 19:00etan, Elorri elkartearen. **Maiatzak 24.** Bertso saioa: Agin Laburu,



Oihana Iguaran eta Eneko Araiz- tegi, 18:30ean, Botikaxaharren.

URRETXU ETA ZUMARRAGA. Ekitaldi guztiak Areizaga-Kalebarren plazan. **Maiatzak 15.** Hasierako ekitaldia, 19:00etan. **Maiatzak 18.** Kultur ibilbidea, 09:00etan, Deskargatik, Zintzo Mintzo elkartearen eskutik. **Maiatzak 22.** Mikro-ipu in lehiaketaren sari banaketa, 18:00etan. **Maiatzak 23.** Hika aritzeko mintzodromoa, 18:00etan. **Maiatzak 24.** Ginkana, arratsaldean.

Maiatzak 25. Bukaerako ekitaldia, 12:00etan.

ZALDIBIA. **Maiatzak 9.** Txapa banaketa, 18:00etan, plazan. **Maiatzak 15.** Bakarrizketa, Xirika kultur elkarte Ander Malbadi, Esti Curiel eta Erik Urbietarekin, 18:30ean, plazan. **Maiatzak 16.** Haurrentzat ekimena, Ausa-Gaztelu guraso elkartearen eskutik. 16:30etik 17:30era. *Gure bihotzaren taupadak* abestia eta dantza, Gazte lokaleko eskutik, 18:00etan. Oiartzun-Zaldibia lagun arteko pilota partidak, 18:00etan. Kantu-jira, herriko kantu taldearen eskutik, 20:00etan. **Maiatzak 22.** Bingoa, Beti Gazte elkartearen eskutik, 17:00etan. **Maiatzak 23.** Ekitaldia, 19:00etan, plazan. Euskarari herri aureskua, herritar guztientzat, Iztueta dantza taldearen eskutik. Goiztiri txarangaren kalejira, 19:30ean.

ZERAIN. **Maiatzak 12.** Txapa banaketa, 15:00etatik 16:30era, eskolako atarian.

Maiatzak 14. Txapa banaketa, udal txean. **Maiatzak 15.** Hasierako ekitaldia. Taldeko argazkia, 18:50ean, plazan. *Auzolangiltza* hitzaldi-dokumentala, Iker Iriarteren eskutik, 19:00, kultur etxean.



JOXE BEGIRISTAIN

IRAKURZALEA

Liburuen liburua

Fernando Rey idazleak maisulanez euskaratutako liburuak *Infinitua ihi batean*. *Liburuen asmakuntza Antzinaroko munduan* du izena. Jatorrizkoa, Irene Vallejoren *El infinito en un junco* da: berealdiko arrakasta izan duena, irakurleengan. Eta, horien artean sartzen dut neure burua ere: nik euskarazko bertsioa irakurri dut eta, asko eta asko baditut ere oso gustukoak ditudan liburuak eta idazleak, liburu honek hasiera-hasieratik harrapatu ninduen eta bigarren aldiz irakurri ondoren, garbi dut irakurri ditudan liburuen artean eta idazle guztien artean, hobenekotzat ditudala dagoeneko, bai liburua eta baita bi idazleak ere.

Funtsean, liburuaren kontrazalean dioena da gaia, alegia, gizakion elkarrenganako harremana ahozkotatasunera mugatzen zenetik, lehendabiziko idatzita jarri ziren hitzetatik gerora, 'liburu' izenez ezagutzen dugun asmakuntzaren historiari buruzko liburua da.

Baina, ordea, hogeita hamar mendean liburuak izan duen ibilbidearekin batera, gizartearen, pertsonon historia da liburu hau! Eta nola ez, liburuak sortu eta harrezkero gaur egunera arte gure esku liburuak jartzen dituzten guztienganako aitortza egiten du Irene Vallejok, eta hor, irakurleok ere, bukaerarik gabeko kate luze-luze horretan katebegi gara; baita hau irakurtzen ari zaren hori ere.

Liburu hau irakurri ondoren, orain are eta gus-turago berrirakurriko ditugu, adibidez, bertan hizpide dituen, eta Homero greziarrak idatzi omen zituen *Iliada* eta *Odisea* liburuak.

Bete-betean Euskaraldiaren saiakera berrian sartzeraz goazen honetan, aitzakia ederra da Irene Vallejok sortu eta Fernando Reyk euskaratutako liburu eder honekin gizakion historia gogoangarri hau ere, euskaraz dastatzeko. ■




LANDU

PRECISION MACHINING

Pol. Basozabal 3 · Olaberria
+34 943 882 152

www.landu.es





Lide Egizala

gizartean integratu nahi dut ahalik eta gehien.

Zer da kulturalki gehien harritu zaituena hemen zaudenetik?

Jendearen berotasuna, esango nuke. Japonia indibidualismoaren herrialdea da, eta bertako jendea oso hotza da. Hemen, aldiz, badago elkarri laguntzeko kultura bat, eta balore horiek jaso nahiko nituzke.

Etorkizunerako zein asmo daukazu?

Japonia bizitzeko leku ona dela uste dut, baina Euskal Herrian bizi nahiko nuke. Hemen oso gustura nago, eta ez dut hau bukatzerik nahi. Hemengoa ez naizen arren, etorkizunean lana hemen egin nahiko nuke.

Esan ohi da euskararen eta japoniar hizkuntzaren artean badela antzekotasunik.

Ergatibozko esaldien ordena oso antzekoa da, eta horrek, hein batean, euskara ikasten lagundu dit. Japoniar hizkuntzaren zailena irudien bidez idaztea dela esango nuke. Bestela, gramatika aldetik, euskara zailagoa iruditzen zait.

Zer da Euskal Herrian gehien gustatzen zaizuna?

Nagusiki, jendearen gertutasuna, esango nuke. Bestalde, asko gustatzen zait pintxopotea, eta tabernak terraza izatea. Japonian ez dago tabernaz taberna ibiltzeko ohiturarik, eta mahaian ere ez gara pertsona batekin baino gehiagorekin egoten. Hemen, ordea, jendea ezagutzeko aukera dago, oso gizarte irekia da. Bestalde, elkarleen kultura ere gustatzen zait: asko jan, jendearekin egon, abestu, musean jokatu...

Eta, alderantziz, zer da Japoniatik gehien gustatzen zaizuna?

Japoniako tresnak eta gailuak ez dira hemengoak bezain azkar hondatzen. Nire lagunaren pisuan, esaterako, igo gailua ia bi astero hondatzen da; Japonian, berriz, ez da horrelakorik gertatzen. Trenak eta garraio publikoa ere ordurako etortzen dira han, hemen ez bezala. Azkenik, kaleak eta espazio publikoak ere hemen baino askoz txukunago egoten dira. Japoniako jendeak hori barneratuta dauka. ■

«Hemengo gizartean integratu nahi dut ahalik eta gehien»

Futbolarekiko zaletasunak bultzatu zuen Ryotaro Yamaji (Tokio, Japonia, 1995) euskara ikastera. Realzalea da, eta horrek Donostia eta Euskal Herria munduan kokatzeko nahia piztu zion. Zortzi hilabetez Donostian gaztelera ikasten egon ondoren, Lazkaoko Maizpide euskaltegian dabil orain euskara ikasten.

Nondik datorkizu euskara ikasteko nahia?

Esango nuke, berez, futboletik sortu zitzaidala Euskal Herria ezagutzeko eta euskara ikasteko gogoia. Bestalde, Japonian Euskal Herriari buruzko zenbait liburu irakurri nituen aspaldi, eta pixkanaka jakin-mina piztu zitzaidan. Gainera, herri honen historia interesgarria iruditzen zait, eskubideak urra-

RYOTARO YAMAJI EUSKARA IKASTEN ARI DEN JAPONIARRA

2024ko azaroan etorri zen Yamaji Japoniatik Lazkaora, eta ekainera arte egongo da bertan. Orain B1 mailako klasean dago, baina etorkizunean C1 mailara iristea du helburu.

LIDE EGIZALA URTEAGA

LAZKAO

tzen diren eremu bat dela uste dut, eta horrek atentzioa deitzen dit.

Zergatik erabaki duzu euskara ikastea?


Euskara ikasi baino lehen, zortzi hilabetez Donostian gaztelera ikasten aritu nintzen. Iruditzen zitzaidan euskara jakin gabe ezingo nuela Euskal Herria bere osotasunean ezagutu, eta horregatik hasi nintzen ikasten. Hemengo



Presarik gabe baina gogo handiz euskara ikasten

ARIANE VIERBÜCHER ITURBE

URRETXU



Urretxu-Zumarragako Udal Euskaltegiko talde bat. A.Vierbücher

Ikaskuntza tituluak lortzeko eta helburu zorrotzak betetzeko beharri lotuta egon ohi den mundu honetan, Urretxu-Zumarragako Udal Euskaltegiak dinamika hori hausten duten euskara ikasteko taldeak ere baditu. Euskara ikasi nahi duten guztiei giro lasaian egiteko aukera eskaintzen die, azterketen edo ziurtagiriak epe jakin batean lortzearen presiorik gabe, ikasteko plazeratik bakarrik.

Motibazio pertsonala beste edozein faktoreren gainetik baloratzen dute euskaltegian. Horren adierazle da, egoera honetan aurkitzen diren pertsonentzat taldeak erraztu izana. Eskolak bi ordutegitan ematen dituzte; goizez ari da talde bat, eta arratsalde beste bat, astelehenetan eta ostegunetan 17:00etatik 19:30era. Horri esker, ikasleek beren bizimodura eta erritmora egokitu dezakete ikaskuntza.

Hurbilekoa eta gizatiarra

Hizkuntza ikastea ez ezik, ikasteko komunitate bat sortzea ere bada helburua. Urretxuko Udal Euskaltegira euskararen ezagutza hobetzeko asmoz hurbiltzen direnak adin eta errealitate desberdinetakoak dira. Funtsezkoena pertsona bakoitza eroso eta motibatuta sentitzea da, aurrera egiteko.

8-10 pertsona inguruko taldeak dira. Talde txikia izateak arreta pertsonalizatuagoa ematea ahalbidetzen du, eta irakasleak ikaslea pausoz pauso

gidatzen du, bakoitzaren erritmoa errespetatuz.

Aintzine Ladron (Zumarraga, 1968) «aspaldi» hasi zen euskara ikasten. «Euskaltegian hasi nintzen, Maizpiden ere izan nintzen uda batean. Bateko familia eta besteko lana, urte batzuetan erdi utzita izan nituen ikastaroak, baina talde hau sortu zela jakin nuenean berriro hasi nintzen, eta oso gustura etortzen naiz», kontatu du. Beste batzuk ere animatu nahi ditu.

Susana Nebreda (Urretxu, 1969) klase kidea ere «aspaldi» hasi zen euskara ikasten. Ikasturtean zehar nola jarduten duten azaldu du; «mintza-praktika egiten dugu asko; asteleheneko saioan asteburuan zer egin dugun kontatzen dugu, eta gero ariketak egiten ditugu. Orain baldintza ari gara ikasten». Aste-ro-astero klaseetan parte hartuta, helburua euskaraz hitz egitea du. Euskara ikasteko metodologiaz gain, «giro ona» nabarmendu du Nebredak.

Kristina Lizarragak (Legazpi, 1965) mintzalagun taldean parte hartu izan du, baina gramatikari arreta pixka bat eman nahi ziolako hasi zen euskaltegi-ko ikastaro honetan. «Gramatika errepasatzeko beharra ikusten nuen eta saio hauek oso baliagarriak zaizkit».

Rocio Barona Pintor (Burgos, 1984) duela zortzi urte iritsi zen Euskal Herrira, eta «lehenengo momentutik» argi izan zuen euskara ikasten hasiko zela. «Hitz egitea kosta egiten zait, po-

liki-poliki ari naiz, eta talde honetan oso gustura sentitzen naiz, oso garrantzitsua da hori».

Ikasi nahi duten guztientzako lekua

Askok uste dute euskara ikastea garrantzitsua dela, bai sustraiengatik, bai inguruan hobeto komunikatzeko nahiagatik, bai, besterik gabe, beste hizkuntza bat ezagutzeko plazeragatik. Urretxun, euskara ikastea proiektu pertsonala da, ziurtagiriaren kanpoko presiorik gabe, eta garrantzitsuen prozesuaz gozatzea da.

Norbere bidea euskararekin hasi nahi duenak, jakin-mina eta ikasteko gogo besterik ez du behar. «Urretxuko euskaltegiak zure erritmora garatzeko espazio bat eskaintzen dizu, inolako premiarik gabe, pixkanaka aurrera egiteko desioarekin eta ilusio handiarekin».

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA
Jose M. Iturriotz, z/g
(LANBIDEn parean)
BEASAIN 943 02 81 00



URRETXU-ZUMARRAGAKO
UDAL EUSKALTEGIA
Labeaga kalea, 40 A
(Belautegi Plaza Berria)
URRETXU 943 72 33 10

Batetik eta bestetik, aldeko jarrera euskararekin



Goierriko euskalgintzako ordezkariak, Lazkaon. Goiberri



Ordiziako kirol klubak. Goiberri



Informazio gunean Kidam magoa, Urretxun. A.Z.



Beasainen horma-irudia, Alain Polok diseinatua.



Andereño Rosita Lazkaon, otsailean. GITB



Beasaingo Udala



EUSKARALDIA + HIKALDIA

Maiatzaren 15-25

ZUMARRAGA-URRETXUN ERE BAI!



ZUMARRAGA-URRETXUKO EGITARAUA

EKINTZAK AREIZAGA-KALEBARRENEN

- Maiatzak 15: 19:00 Hasiera ekitaldia
- Maiatzak 16: Euskaraldia Eitzagako festetan
- Maiatzak 18: 09:00 Ibilbide kulturala Deskargatik, Zintzo-Mintzoren eskutik.
- Maiatzak 22: 18:00 Mikro-ipu in lehiaketaren sari-banaketa.
- Maiatzak 23: 18:00 Hikaz aritzeko mintzodromoa.
- Maiatzak 24: Kontzertuak arratsaldez.
- Maiatzak 25: 12:00 Bukaera ekitaldia.

Euskaraldiari bertsoak



**ARATZ IGARTZABAL
BIDEGAIN**

GABIRIA

Hizkuntza txiki denen gaisetarik egoten dira handiak.
Beti menpean egonda nekez emango dio argiak.
Zenbateraino indar egingo dio ba Euskaraldiak?
Indar gehiago duen garaian kontrako larrialdiak.

Herri xeheak kulpa guztia duenik ez det esango!
Finantziario arloan ere jende epela baitago.
Euskara denon eskura behar da: buru, bihotz eta aho...
Ardura denok daukagu, baina batzuek pixkat gehiago.

Indar handirik ez det somatzen euskaradunon ganoran...
Zer pasatzen da eskola, parke edo poteo denboran...
Erdaldunberri asko erderaz nonbait egon nahian modan: sarri zalantzan nago non gauden, Goierri ala Zamoran.

Ezkorraldiak harrapatzen nau ta hori behar det eten.
Pentsatu behar da hauspotu dadin zer egin ote daiteken.
Entzun, hitz egin, prest eta bizi.. antzemango da noizbaiten...
Txapa jantzita segi zazue euskeraz txapa ematen.

**ZEURE ETXEA
MARGOTZEN DUGU**

685 762 221

**Autonomoak eta enpresak
Laborala
Kontabilitatea
Fiskala
Juridikoa**

Abokatua:
Mila Sukia Galparsoro

www.ikm.net
Mallutz industria gunea
ORDIZIA
Tel.: 943 88 21 06

**Bidezahar, 7
Tel.: 943 03 75 27
20700 Zumarraga**

**Kale Nagusia, 24
Tel.: 943 73 17 98
20230 Legazpi**

BELARDENDA

- Estetika
- Dietetika
- Produktu biologikoak

1988tik zuekin

**ITURGINTZA
PLAZAOLA**

Erakusketa:
Bidezahar, 5
Zumarraga
T. 943 72 13 70

plazaolaiturgintza@gmail.com

**GANBO-TXIKI
tailerrak**

**MEKANIKA
ARROZTEGIA
ETA
PAKETATZEAK**

www.ganbotxiki.com

Zubi Erreka industrialdea 50 - LAZKAO
665 731 205

autorrecambios
GOYERRI
Automobilien zerbitzu orokorrak

Antzizar 1, 20200 Beasain (Gipuzkoa)

943 884 550 info@goyerri.com
690 948 999 www.goyerri.com



Arg. Mikel Bálardi



OLABERRIKO UDALA
WWW.OLABERRIA.EUS
T 943 88 14 34

Euskaraz lasai aritzeko leku bat, Olaberria!

Etengabeko berrikuntzarekin deskarbonizazioa bultzatzen dugu, eta etorkizun jasagarria elektrifikatu, emisioak murriztu eta planeta babesteko duten soluzio teknologikoak garatzen ditugu.

Emma Pérez
Regulation & Control Integration



www.ingeteam.com

Ingeteam ELECTRIFYING A SUSTAINABLE FUTURE



Euskaraldiko txapatxoan 'H' bat

Umorea txartzeraino amorratzen naute gizonek, hika zuzentzen zaizkionean nire ondoko tipoari, eta zuka, segidan, niri; eta kode horietan irauten duenean elkarriketak azkenera arte. Edo irakasleek ikasturteko lehenengo egunetik egiten dietenean hika klaseko tipoei, besteei ez. Edo aitonak, biloba guapa txintxoari ez dionean hala egiten, baina bai haren nobio berriari. Edo kirol ekipoetako kargudun gizonak, haien klubeko protagonista gizonetzkoen bizkarrean kolpea eman ahala hika zuzentzen zaizkienean. Edo askotariko kultur ekimenetako antolatzaileek, mendi-lasterketetako *speaker*-ek, tabernako zerbitzariak, aitek, osabek, anaiek, lehengusuek, bizilagunek. Hizkeraren erabilera urriak bezainbeste – are gehiago – amorratzen naute hitanoaren inguruan egonkortuta dauden dinamikek, joerek eta inertziek.

Aurten, Euskaraldian, Belarriprest edo Ahobizi txapan 'H' bat pegatzeko aukera izango omen dugu, jendeak hika hitz egin diezagun. Ilusio puntua ere egin zidan jakin nuen,



**MADDI AIESTARAN
IPARRAGIRRE**

BERTSOLARIA

nean, emango diolako hala nahi duenari aukera hika norekin mintzatu jakiteko eta hartuko duelako hizkera horrek ohi baino toki nabarmenagoa, seguruenik, gure herrietan. Ordea, kamiseta-jertse-txaketetako txapatxoan 'H' bat pegatzen dugun momentutik, nago proposatu behar litzatekeela hartu dezagula tarte haustartzeko hitanoaren eta maskulinitatearen arteko harremanaz, hitanoaren erabilera normalizatuak atzean duen biolentzia, erreproduzitzen dituen egiturez. Hitanoa ikusgarriago egiteko ez ezik, balio dezala *Euskaraldia Hika* ekimenak hitanoaren errealitateari ikuspegi kritikotik erreparatzeko eta horren inguruan haustartzeko. Hizkuntzaren –eta beraz, hiztunon– lurra geruza mordo batek osatzen dute; horietan guztietan barrena mugitu dezagun elkar. ■



Nico, Donostia
24/12/4 Donostia Ospitalea

Gipuzkoa egunero sortzen da.

Pertsonen ongizate integral handieneko
lurraldea izatea da gure asmoa.

GIPIZKOA
Ekin. Zaindu. Bizi.



MANTENU LANETAN
20%ko DESKONTUA



GURPILAK



AIRE GIROTUA - 2 GAS MARKA GUZTIEN DIAGNOSIA



BALAZTAK



CITROËN

TXINDOKI garajea

Mallutz 3 - ORDIZIA - 943 88 66 22
garajetxindoki@gmail.com

ORDEZKO IBILGAILUA



NEURRI HANDIKO
IBILGAILUENTZAT ZERBITZUA

Progresiboen Hilabetea

2 x 199€

mó betaurreko progresiboak
(batzuk eguzkitakoak izan daitezke)

MULTIÓPTICAS

Tel.: 943 80 58 84

Nafarroa Etorbi. 9-11

BEASAIN



eskatu
hitzordua
WhatsApp
bidez



Tel.: 943 88 99 88

J.M. Barandiaran Enp.

ORDIZIA

www.multiopticas.com

